





AMASA-VILLABONA  
bertso eta ipuin lehiaketa  
**2011**

**Amasa-Villabona bertso eta ipuin lehiaketa**

Villabonako udala

2011. urtea

Lege gordailua: SS-1338-2011

Diseinua eta maketazioa: antza komunikazio grafikoa

Inprimaketa: antza s.a.l.

# Sarrera

**H**auxe da Villabonako Udalak 2011n antolatutako bertso eta ipuin lehiaketako argitalpena. Ez daude hemen aurkeztutako lan guztiak, baizik eta, epaimahaikideen ustez, lanik txukunenak direnak. Hala eta guztiz ere, Villabonako Euskara eta Hezkuntza Batzordeak lerro hauek baliatu nahi ditu esker ona adierazteko lanen bat aurkeztu duten ikasle guztiei, ahalegin horretan lagundu dieten irakasleei eta bertso eta ipuin guztiak irakurtzeko eta juzkatzeko lana eta ardura hartu duten epaimahaikideei.

Nork daki, beharbada liburuxka xume honetan ikusten dugun izenen bat bihar-etzi plaza handiagoetan ikusteko aukera izango dugu.

VILLABONAKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA



# Amasa-Villabona bertso eta ipuin lehiaketa 2011

## SARIDUNAK

### LEHEN HEZKUNTZA 3.-4. MAILAK

#### BERTSOAK

1. saria: Ander Usandizaga Aiertza (Jesusen Bihotza)  
"Futbolari txarra"
2. saria: Beñat Intza Jauregi (Jesusen Bihotza)  
"Tolosan Ihauteriak"
3. saria: Ander Alonso Arruti (Jesusen Bihotza)  
"Ihauteriak"

#### IPUINAK

1. saria: Anne Iztueta Garcia (Jesusen Bihotza)  
"Haizea eta olatua"
2. saria: Iñaki Iglesias Chaparro (Jesusen Bihotza)  
"Zuhaitza eta txoria"
3. saria: Eneko Etxeberria Lertxundi (Fleming)  
"Ezkutaketan"

### LEHEN HEZKUNTZA 5.-6. MAILAK

#### BERTSOAK

1. saria: June Ugarte Iraola (Fleming)  
"Auschwitz"
  2. saria: Garazi Otegi Galarraga (Fleming)  
"Argentinako kontuak"
  3. saria: Arkaitz Otaegi Sarasua (Fleming)  
"Eskola"
- Aipamen berezia: Manex Irazusta Mujika (Fleming)  
"Lagunik onena kanpora doa bizitzera"

#### IPUINAK

1. saria: Larraitz Garmendia Aizpurua (Jesusen Bihotza)  
"Iker eta mendi misterioitsua"
2. saria: Telmo Gartzia Arana (Fleming)  
"Baserritarraren hausnarketa"
3. saria: Nerea Etxeberria Arin (Jesusen Bihotza)  
"Arrautza edo txita"

### DBH 1.-2. MAILAK

#### BERTSOAK

1. saria: Iratxe Geresta Azurmendi (Ernio-bea)  
"Osaba zena"
2. saria: Igor Gorostidi Murua (Ernio-bea)  
"AHTren hondamendiak"
3. saria: Nadia Boujemaa Zabala (Ernio-bea)  
"Injustiziaz inguratuak"

#### IPUINAK

1. saria: Silvia Moreno Gomez (Jesusen Bihotza)  
"Nire aitonaren istorio ahaztezina"
2. saria: Maider Alfonso Izagirre (Jesusen Bihotza)  
"Hiru orinak"
3. saria: Nerea Arregi Ubetagoiena (Ernio-bea)  
"Mendiaren indarra"

### DBH 3.-4. MAILAK

#### BERTSOAK

1. saria: Ane Geresta Azurmendi (Ernio-bea)  
"Leihotik begira"
  2. saria: Haritz Mujika Lasa (Ernio-bea)  
"Ispiluari beldur"
  3. saria: Leire Olazabal Arrastoa (Ernio-bea)  
"Bizitzaren parada"
- Aipamen berezia: Julen Esnaola Zabala (Ernio-bea)  
"Oialume"

#### IPUINAK

1. saria: Aitor Gisasola Iraola (Jesusen Bihotza)  
"Scott eta Newcastleko kondaria misterioitsua"
2. saria: Aitor Ormazabal Zubeldia (Jesusen Bihotza)  
"Benetako altxorra"
3. saria: Unai Iparragirre Quilez (Ernio-bea)  
"XX. mendeko Gauguin"



**LEHEN  
HEZKUNTZA**

3. ETA 4.  
MAILAK

**Amasa-Villabona**  
bertso eta ipuin lehiaketa  
**2011**

BERTSOAK

---

<b>“Futbolari txarra”</b>	
Ander Usandizaga Aiertza	8
<b>“Tolosan Ihauteriak”</b>	
Beñat Intza Jauregi	9
<b>“Ihauteriak”</b>	
Ander Alonso Arruti	10

IPUINAK

---

<b>“Haizea eta olatua”</b>	
Anne Iztueta Garcia	11
<b>“Zuhaitza eta txoria”</b>	
Iñaki Iglesias Chaparro	12
<b>“Ezkutaketan”</b>	
Eneko Etxeberria Lertxundi	13



## Futbolari txarra

❖ Ander Usandizaga Aiertza

Ander gaur futbolean  
jolasten zegoen  
neska bat ikusita  
txoratu egin zen.  
Porteroa zen baina  
denak sartzen ziren  
horrela azkenean  
galdu egin zuten.

Bukatzean lagunak  
hasarretu ziren  
baina oraindik Ander  
zeruan zegoen.  
Lainoetatik jeitsita  
aterizatu zen  
ondorengo guztia  
irabazi zuten.



## Tolosan inauteriak

❖ Beñat Intza Jauregi

Txaranga egoten da  
Tolosako plazan,  
jendea ibiltzen da  
salto eta dantzan.

Zezena atera ta  
denak jarri saltsan.  
Gure aitona ere  
barrezka hasi zan.



## Inauteriak

↔ Ander Alonso Arruti

Umerez jantzi zaigu  
Tolosa herria  
Pirata, pailazoa,  
txerri, inurria.  
Mozorroz jantzitzea  
dut gustagarria.  
Horrela ibiltzea da  
dibertigarria.



## Haizea eta olatua

❖ Anne Iztueta Garcia

Bazen behin, haize bat, izugarrizko haizea ematen zuena. Hori gertatzen zenean jendea babesera joaten zen. Egun batean, oso eguraldi ona egiten zuen eta mundu guztia hondartzara joaten zen eguzkia hartzera eta olatuekin ibiltzera.

Orduan, haizea bakar-bakarrik sentitu zen eta negarrez hasi zen. Azkenean, haizeak erabaki zuen hondartzara joatea eta ahal zuen haize guztia botatzea. Une horretan jendea korrika hasi zen hondartzatik irten nahian. Haizeak hondarra altxatzen zuen eta begietan sartzen zen.

Olatua haizearekin haserretu egin zen eta esan zion:

– Guda hasi da!

Hurrengo egunean olatuak, olatu oso ederrak bota zituen eta surflariak olatu handien gainean egoten ziren poz-pezik. Haizea, bitartean, inbidiaz amorratuta zegoen eta bere indar guztiekin haize boladak bota zituen surflaria erori arte.

Halako batean, olatuak haizeari esan zion:

– Zergatik egiten dituzu horrelako gauzak?

– Jende guztia zurekin dagoelako eta nirekin inor ez.

– Niri gustatuko litzaidake biok ondo konpontzea. Nahi al duzu sekretuak gure artean edukitzea?

– Bai, nahiko nuke. Bihar 11:00etan geldituko gara.

Hurrengo egunean, puntual heldu ziren Haizea eta Olatua. Nahiz hasieran kostatu, pixka-pixkanaka beraien sekretuak bata besteari kontatzen hasi ziren. Hase-reak alde batera utzi eta lagunak izatea eta biak jendearekin ondo konpontzea erabaki zuten.

– Niri ondo iruditzen zait eta zuri, haizea?

– Niri ere bai.

Orduan, inoiz gehiago ez ziren haserretu eta gainera oso zorionsu bizi izan ziren.



## Zuhaitza eta txoria

❖ Iñaki Iglesias Chaparro

Bazen behin txori txiki bat beti kaletik hegan ibiltzen zena. Baina oso beldurtia zen. Beldur gehiena lorategiko zuhaitzak ematen zion.

Goiz batean, etxetik atera eta lorategira joan zen lagunena bila. Denbora asko pasa zuen lagunak bilatzen, baina ez zituen aurkitu. Azkenean lagunak zuhaitzetik jaitsi, berarengana hurbildu eta galdetu zioten:

– Txoritxo! Nahi al duzu gurekin zuhaitzera igo!

Eta txori txikiak erantzun zien:

– Ez, ez! Ez dut nahi, zuhaitzak beldurra ematen dit eta!

Lagunek ez zela txoria pentsatu zuten.

– Zu ez zara txoria! Txoriak zuhaitzetan ibiltzen gara!

Txoritxoa oso triste jarri eta etxera joan zen. Iritsi zenean esan zion amari:

– Ama! Zuhaitzek beldurra ematen didate!

– Txoritxo, ez izan beldurrik zuhaitzei, ez dizute hozkarik egingo eta!

Txoritxoa normala izan nahi zuen eta ez beldurtia. Orduan lorategira joan zen beldurrik gabe eta zuhaitzera igo zen. Denbora asko ibili zen zuhaitza guztia begiratzen, ea beldurra ematen zion zerbait bazegoen. Baina ez zuen ezer aurkitu.

Txoritxoa lasaitu eta nekatuta zegoenez, lo hartu zuen. Esnatu zenean esan zion zuhaitzari:

– Zuhaitz! Ez zaitut inoiz ahaztuko!

Gero etxera joan eta beldurrik ez zeukala esan zion amari. Ondoren kalera atera eta lagunekin topo egin zuen. Hauek barkamena eskatu zioten.

Geroztik lagunekin ibiltzen da jolasten lorategiko zuhaitzean.



## Ezkutaketan

### ❖ Eneko Etxeberria Lertxundi

Ostiral arratsalde batean, eskolatik atera eta gero, lagun pilo bat elkartu ziren plazan. Orduan, Asier, Iker, Karlos, Imanol, Miren, Ariane eta Enekok erabaki zuten ezkutaketan jolastea.

Dona-dona egin ondoren Karlosi geratzea tokatu zitzaion, eta beste guztiok ezkutatzera joan ziren. Asier parkeko txirristaren atzealdean gorde zen, Iker bere etxe azpian, Imanol arbolaren atzean, Miren eta Ariane elkarrekin horma batean, Eneko beraiek egindako txabolan. Karlosek, pixkanaka, denen izenak esan zituen, Ikerrena izan ezik. Denbora asko pasa zen. Lagunak kezkatzen hasi ziren eta esan zuen Imanolek:

– Non egongo ote da Iker?

Arianek, kezka aurpegiarekin, esan zuen:

– Zergatik ez dugu bere etxean galdetzen?

Ikerren etxera joan eta tinbrea jo zuten. Ikerren amak, balkoira atera eta esan zuen:

– Zer gertatzen da neska-mutilak?

Mirenek esan zuen:

– Ez dugu Iker aurkitzen!

Eta bere amak, erdi barrezka, esan zuen:

– Meriendatu eta seko lo geratu da!

Karabin karaban ipuin hau bukatu da.



**LEHEN  
HEZKUNTZA**

5. ETA 6.  
MAILAK

**Amasa-Villabona**  
bertso eta ipuin lehiaketa  
**2011**

BERTSOAK

---

<b>“Auschwitz”</b>	
June Ugarte Iraola	16
<b>“Argentinako kontuak”</b>	
Garazi Otegi Galarraga	17
<b>“Eskola”</b>	
Arkaitz Otaegi Sarasua	18
<b>“Lagunik onena kanpora doa bizitzera”</b>	
Manex Irazusta Mujika	19

IPUINAK

---

<b>“Iker eta mendi misterioitsua”</b>	
Larraitz Garmendia Aizpurua	20
<b>“Baserritarraren hausnarketa”</b>	
Telmo Gartzia Arana	22
<b>“Arrautza edo txita”</b>	
Nerea Etxeberria Arin	23



## Auschwitz

❖ June Ugarte Iraola

Bizitzako ametsa  
eskeintzen zieten  
tren batean sartuta  
bidaia ezin eten  
denek amesten zuten  
joango gara aurten.  
Familiaka hil zituzten  
gela itxi baten.

Auschwitz hiltzea zen  
gauza derrigorra  
batzuk salbatu ziren  
besteak izorra.  
Handik ateratzea  
munduko altxorra.  
Benetan izan zuten  
bizitza gogorra



## Argentinako kontuak

❖ Garazi Otegi Galarraga

Gerra hasi zenean  
Nintzen nahigabetu  
Ahal degun bezelaxe  
Dugu guk bizitu  
Lan bila irten bide  
Bat nahi nun aurkitu  
Argentina aldera  
Artzain naiz abitu.

Baserri txiki baten  
Lanean naiz hasi  
Behiak eta oiloak  
Behar ditut hazi  
Loa edozer gauzak  
Ohi dit galerazi  
Lana badaukat baina  
Zoriontasun gutxi.

Gaztea naiz ta etxea  
Urrun dut oraindik  
Samina ta herri mina  
Sentitzen ditut nik  
Ahal dudan une baten  
Alde ingot hemendik  
Euskal Herria maite  
Baitut bihotzetik.



## Eskola

➤ Arkaitz Otaegi Sarasua

Asteko egun txarrena  
Astelehena bera  
Aurrena ingurune  
Ta ondoren euskera  
Zoritxarrez atsalde  
Guztian erdera  
Aldatu nahi nuke  
Atzetik aurrera

Asteko egun onena  
Degu ostirala  
Eskola ta gero  
Hartu ohi det pala  
Nere kontrarioa  
Da oso makala  
Asteburuak luze  
Jarraitu dezala



## Lagunik onena kanpora doa bizitzera

↔ Manex Irazusta Mujika

Murtziako kostara  
zoaz bizitzea  
gurasok lana aurkitu  
dute han batea  
pena handia ematen dit  
zu hemendik jutea  
messenger-etik edo  
ikusiko gea

Jolasteko batera  
ezingo gea izan  
mendira ere ezingo  
deu elkarrekin joan  
lagun berriak eta  
(eg)ingo dituzu han  
udan ona etorri  
ta sorpresa eman

Dagoeneko ordua da  
zuk joan behar duzuna  
dena dago prest eta  
oso-oso txukuna  
benga joan behar duzu  
ez izan astuna  
segi zure autora  
ta agur laguna.



## Iker eta mendi misterioitsua

❖ Larraitz Garmendia Aizpurua

Bazen behin Iker izeneko mutiko fantasioso bat, abenturazko ipuinak irakurtzea asko gustatzen zitzaiona. Ikastolako jolas ordua aprobetxatzen zuen liburuak irakurtzeko, gogotsu aritzen zen istorioan sartuta.

Gau batean, afaldu eta gero oheratu zen beti bezala eta betiko moduan abenturazko ipuin bat hartu eta irakurtzen hasi zen. Mendi misterioitsu bateko abenturaz beteta zegoen liburu hura, beti bezala oso gustura ari zen irakurtzen Iker. Halako batean, mendian gora zihoan zuhaitz artean, aldapa handia igotzen ari zen, izerdi patsetan zihoan (bizkarrean zeraman motxilak ere karga izugarria zeukan eta...).

– Ezin dut gehiago- esan zuen Ikerrek hasperenka.

Hori esan eta etxola bat jarri zitzaion begi aurrean magia gertatu izan balitz bezala. Etxolara inguratu zenean oso polita zela konturatu zen, ateak maitagarriaren ikur bat zeukan, urre koloreko aldaba distiratsu baten goialdean. Aldaba jo zuenean oso soinu berezia eta polita egiten zuela konturatu zen baina inork ez zuen erantzun. Ikerrek barrura sartzea erabaki zuen. Hain nekatua zegoen! Hori pentsatu orduko atea poliki-poliki irekitzen hasi zen.

Orduan konturatu zen Iker, mendi misterioitsu hartan gauza bat nahi izanez gero, egia bihurtzen zela.

Etxolara sartu zenean izugarri gustatu zitzaion nola zegoen apainduta, magiazko etxola zirudien. Bat-batean maitagarri bat azaldu zitzaion eta hark esan zion:

– Kaixo Iker, nik ezagutzen zaitut, Anelia maitagarria naiz eta mundu guztia ezagutzeko ahalmena dut. Zure nahia egi bihurtuko dut, mendi misterioitsua erakutsiko dizut.

Iker goseak zegoen eta Aneliak txokolatea eta pasteltxoa eman zizkion. Pixka bat deskantsatu ondoren mendia ikustera abiatu ziren. “Hori zortea daukadana!” pentsatu zuen Ikerrek, “Anelia gidari dudalako!”.

Anelia maitagarria zenez, hegan eraman zuen lker mendian zehar, horrela ez baitzen nekatuko.

– Hori gauza ikusgarriak ikusten diren goitik!

Sumendi batek labarekin eginiko bideak zituela, kobazuloak, antzinako animalien aztarnak...

lkerri gehien gustatu zitzaiona, zera izan zen: Aneliak fenomeno naturalak nola sortzen diren aurkezpen bat egin zihoeanean. Ekaitza eragin zuen bere tximista trumoi eta guzti, ikusgarria izan zen.

lker ikaratu egin zen, baina Aneliak lasaitu egin zuen esanez:

– Hauek naturaren gauzak dira eta ez da beldurrik izan behar, ekaitzaren ondoren baretasuna dator berri eta dena bere onera itzultzen da.

Oso gustura zebilen mendi misteriotsuan eta bat-batean, “pit, pit, pit...!” entzun zuen soinu bat. Orduan konturatu zen dena amets bat izan zela. Goiz hartan oso pozik jaitsi zen lker gosaltzera, bere bihotzean zeuden oraindik Aneliarekin bizitako abenturak. Bere amarekin berriketan egon zen inoiz ez bezala, amets eder eta polit horrengatik.

lkastolara joateko garaian, bere lagunei kontatu zien amets harrigarriarena.

Zer ona izango litzatekeen, pentsatutako gauzak egia bihurtuko balira. Baina... gauza onak eh..... ja, ja, ja, ja!!!!!!!



## Baserritarraren hausnarketa

◆ Telmo Gartzia Arana

Joxe Miel txerri granja bateko jabea da, txerriei begira zegoen batean hauxe pentsatu zuen bere artean.

Arroxa jende askori gustatzen zaion kolorea da, baina txerria arrosa da eta niri ez zait gustatzen zikina delako, beno, bere haragi gorria bai, baina ez zait gustatzen gorriak ikustea, gauzak beltz daudenean ikusten dira gorriak baina ez da kolore itsusia gorria eta gainera, eskerrak ez duen aspertzen etxe guztien teilatuak halaxe dira eta. Adibidez zuria eta berdearekin jarriz gero bandera polita egiten dute. Zuria bera bakarrik, ez. Poltsikoak zuri edukitzea ez baita gauza ona gero! Baina, elurrarekin gozatu egiten da. Zuria beltzaren kontrakoa da. Galdera bat zebreak zer dira zuriak marra beltzekin ala beltzak marra zuriekin? Zebreakin ari naitzela, sabanan bizi dira, sabana horia da. Horiak dira gauza on asko adibidez: eguzkia, pina, platanoa, gazta... baina gauza hori ez oso onak ere badaude adibidez: limoia edo hondarra, jateko ez baita oso ona, baina oso ongi pasatzen da hondartzan gazteluak eginez edo itsaso urdinean bainatuz, urdina ere kolore ederra da, niri behintzat asko gustatzen zait, adibidez: zerua oskarbi dagoenean edo itsasoa, bueno, batzuetan grisa izaten da, itsaso zakarra dagoenean, grisa ez dut gauza politekin lotzen baina, pentsatzen hasi ezkeru badaude gauza politak: izurdeak nori ez zaizkio gustatzen? Ala ere zerua lainotuta dagoenean grisa da eta gainera euria egiten du, baina hori ona da, zelaiak berdetzen dituelako eta berdea ere atsegin dut, berdea animaliei eta niri ere atsegin zaigu, animaliei, bera jaten dutelako eta niri besterik gabe udareak, basoak ere politak dira. Natura berdea dela ezin esan, baina gehiena, bai. Jesus azkenerako zenbat kolore etorri zaizkidan burura! Hala ere badago zerbait kolore guztiak biltzen dituen zer ote den zuei tokatzen zaizue asmatzea. Azkenean zein aspergarria litzatekeen mundua kolorerik gabe.



## Arrautza edo txita

↔ Nerea Etxeberria Arin

Urrutiko herrialde batean, bazen mutiko bat Eneko izena zuena. Enekok 25 urte zituen eta bakar bakarrik bizi zen bere etxean, mendi puntan, bake-bakean.

Orain dela urte batzuk, bere ama hil egin zen eta diru poltsatxo ederra utzi zion eta oilo batzuk, behi zahar batekin batera. Enekori izugarri gustatzen zitzaizkion arrautzak eta egunero gosaltzeko arrautz bat jaten zuen. Enekok ez zuen lanik eginen baina ez zuen diru faltarik, oso ondo aprobetxatzen zuen bere dirua behar zituen gauzak erosteko.

Goiz batean jaiki zenean, behia hilda aurkitu zuen, handik egun batzuetara oilo zahar bat ere bai eta pixkanaka oilorik gabe geratu zen. Jada ez zuen ez esnerik eta ez arrautzarik baina udazkena zenez, zuhaitzetako frutak jaten hasi zen.

Negua iritsi zen eta ez zitzaion ezer gelditzen, ez dirurik, ez arrautzarik, ez esnerik eta ez frutarik.

Herrira joan zen eta erosteko dirurik ez zuen, kaleko jendeari dirua eskatzen hasi zen. Jendeak ordea, ez zuen diru asko botatzen eta gainera batzuk oihuka hasten zitzaizkion.

- Ez daukazu sasoi txarra lanera joateko!
- Nik dirua lana eginda lortzen dut eta ez horrela!

Egunero arrautza bat eta bokadiloren bat erosteko nahiko diru lortzen zuen baina konturatu zen horrela, beti berdin jarraituko zuela, jateko bakarrik lortzen zuen dirua eta zerbait egin behar zuela pentsatu zuen. Hiru egunetan jan gabe geratu eta lortutako diruarekin bi txita eta landare hazi batzuk erostea erabaki zuen eta horrela egin zuen. Aldi batean, zakarrontzian bilatutako janaria janez ibili zen dirua gordetzeko.

Udaberria iritsi zenean bere etxera itzuli zen eta txitak itxitura betean jaso eta haziak landatu zituen, etorkizunean barazkiak eta frutak izateko. Egunak txitak zaintzen eta baratzeko landareak txukuntzen pasa zituen, hala ere, egun batzue-

tan herrira jaisten zen diru pixka bat lortzeko, baina udaberrian eta udan nahiko fruta bilatzen zuen basora joanda: masustak, marrubiak, udareak, melokotoiak...

Egunak pasa egunak etorri txitak hazi eta lehen arrautza ikusi zuenean, oso pozik jarri zen, bere bizitzako egun zoriontsuena izan zela esan zuen eta berriro ere egunero arrautzak gosaltzen hasi zen. Baratzetik, letxuak, azenarioak, patatak eta beste barazki asko jasotzen zituen, orain ez zitzaion ezer falta.

Oilo guztiak, arrautzak jartzen hasi zirenean, gehiegi zituenez berarentzat, azokara eramaten zituen saltzeko. Handik ateratako diruarekin, txerrikume bat erosi zuen lehenik eta gerora behi bat ere bai.

Hogeita hamar urte egin zituenean, izugarrizko baserria zuen, behiak, txekorrak, txerriak, untxiak, oiloak... denetatik zuen, zaldi bat ere, astero herriko azokara joateko.

Orain oso pozik bizi da eta nahi duen guztia du, baita ere telebista eta internet ere lagunekin hitz egiteko. Askotan pentsatzen du arrautzak oso gustukoak dituela baino txitak ere oso garrantzitsuak direla, ez baitago arrautzarik txitarik gabe.

**DBH**

**1. ETA 2.  
MAILAK**

**Amasa-Villabona**

bertso eta ipuin lehiaketa  
**2011**

## BERTSOAK

---

**“Osaba zena”**

Iratxe Geresta Azurmendi 26

---

**“AHTren hondamendiak”**

Igor Gorostidi Murua 27

---

**“Injustiziaz inguratuak”**

Nadia Boujemaa Zabala 28

---

## IPUINAK

---

**“Nire aitonaren istorio ahaztezina”**

Silvia Moreno Gomez 29

---

**“Hiru orinak”**

Maidier Alfonso Izagirre 33

---

**“Mendiaren indarra”**

Nerea Arregi Ubetagoiena 37

---



## Osaba zena

↔ Iratxe Geresta Azurmendi

Kaixo osaba, zer moduz zaude?  
Hauxe da nire galdera  
Naiz eta ez ginen ezagutu  
Badut zure adiera  
Borrokari sutsua zinen  
Pertsona ona gainera  
Eta zure izena ez dute  
Inoiz sartuko lurpera.

Gudari oro moduan zinen  
Herritar guztion lagun  
Herriagatik borrokatzeko  
Bizia eman zenigun  
Sarritan jendeari laguntzen  
Bai gau ta bai egun  
Herri honentzat askatasuna  
Beste nahirikan ez zenuen.

Urte hartako sufrimendua  
Guztiok dugu gogoan  
Erail zintuzten etsai haiek  
Oraindik dabiltz kanpoan  
Martxo ura arantza batekin  
Sartu ziguten kolkoan  
Baina zuk ereindako lorea  
Geratu zaigu ondoan.

# AHTren hondamendiak

↔ Igor Gorostidi Murua

Baso ta mendiz inguratuta  
Dago nere baserria  
Ernio azpian ezaguna den  
Leku txit zoragarria  
Orma zaharrak baina sendoak  
Eta teilatu gorria  
Baina jaso det berria  
benetan izugarria (bis)  
laster-laster hasiko direla bertan  
zulatzen mendi harria  
bere gainetik pasa nahi dute  
zubi erraldoi berria (bis)

Eman didaten berri honekin  
Ezin oso alai izan  
Zubi haundi bat egin nahi dute  
Baserriaren gainean  
Eta trenaren zarata haundia  
Beti gure belarrian  
Lurra mugitzen denean  
Pasatzen den bakoitzean (bis)  
Eguzkiaren argirik gabe  
Betirako itzalpean  
AHTaren hondamendiak  
Ez nituzke nik nahi jasan (bis)



## Injustiziaz inguratuak

↔ Nadia Boujema Zabala

Injustiziaz inguratuak  
mundu honetan gu gaude  
Ulertezinak egiten zaizkit  
beste gauza asko ere  
Hainbeste diru abertasek (e)ta  
Pobreak egarriz daude  
Jendea(r)i, ordea, ez zaio inporta  
Batzuen lana de balde  
Elkartu gaitezen gu denok (e)ta  
Ea badagoen zorte  
Mundu zikin hau alda dezagun  
Berdintasunaren alde

Hainbeste jende ezer in gabe  
dirua lortzen jo-ta.ke  
pobreengatik kezkatzea (e)re  
ondo egongo litzake  
bakoitzak ahal duena emanaz  
sortuz irri, poz (e)ta pake  
Hirugarren mundua ahaztuz  
denak elkartu gaitezke  
Gu ere ez gaude batere ondo  
Zuek gaizki bazaudete  
nahiz (e)ta nekez borrokatu behar  
zerbait lortu genezake.



## Nire aitonaren istorio ahaztezina

❖ Silvia Moreno Gomez

Ez zait batere gustatzen zaharrekin denbora igarotzea, asko aspertzen dute, batez ere nire aitonak, beti ipuin itsusiak kontatzen dizkit umeentzat direnak, eta ni, jada, ez naiz umea, 13 urte ditut.

Gaur ez naiz ikastolara joan, gaixo nagoelako, baina aitona etorriko da arratsaldeko laueta eta seguru nago nire gelara igo eta beste ipuin itsusi bat kontatuko didala.

Gelara igo da eta oso pozik, irribarre handi batekin ahoan esanez gaurko ipuina ahaztezina izango dela. Ipuinaren hasiera horrela hasten da:

1939ko ekaina zen, eguraldi oso ona egiten zuen Parisen. Bi anaiak oso alai zeuden zalditan ibiltzen, bere aitaren etxe handiaren jardinean, jardina berdea eta lorez betea zegoen, mahai txiki batzuekin, aulki dotore batzuek apainduta.

Pierrek ile marroia zuen begien antzera, eta nahiko serioa zen baina momentu batzuetan oso alaia, neska batetaz maitemintzen zenean oso serio hartzen zuen erlazioa. Beraien ama, beraiek hiru urte zituztenean hil zen. Bostak aldera, Pariseko kafetegi ezagun batean izozkia hartzea gustatzen zitzaion.

Beste anaia Jean, harroputza zen, asko antzematen zen bere aitak diru asko zuela, neska bat polita iruditzen zitzaionean bera eskuratu nahi izaten zuen beti. Hurrik ere ez zuen ematen eta beti sator lanean zebilen.

Aita oso-oso serioa zen, bere semeekin denbora luzea igarotzea gustatzen zitzaion eta zaldian ibiltzea, bere emaztea zenari gogoratzen baitzion eta. Diruz gainezka zegoen baina guztiz pertsona ona eta jatorra zen.

Ekainaren bosta iritsi zenean aitak telefonoa hartu eta notizi triste bat eman zioten, bere lagunik onena hil egin zen eta bere lagunaren alaba, Natalie, gurasorik gabe geratu zen. Orduan, aitak bitan pentsatu gabe Natalieri bere etxera bizitzera etortzeko eskatu zion. Nataliek baietz esan zion, ez baitzeukan beste lekurik. Arratsalde horretan aita, Natalieren gela prestatzeko eskatu zien neskameei.

Hurrengo egunean, Natalie iritsi zen goizeko bederatzieta, eta bi anaiak eta aita etxeko sarreran ongi etorria eman zioten. Natalie irribarre batekin bi muxu eman zizkien bakoitzari. Pierrek Natalieri begiratu bezain pronto maitemindu ziren.

Nataliek ile luzea eta marroia zuen begien antzera eta oso kizkurra. Beti lepoko bat ematen zuen jantzita, bere amak oparitu baitzion txikia zenean eta ez zuen inoiz kentzen. Arratsaldeko bostak aldera Pariseko kafetegi arrakastatsu batean izozkia hartzea ikaragarri gustatzen zitzaion. Oso pertsona txantxa zalea eta alaia zen, baina ez zitzaion gustatzen berari gezurrak esatea.

Egunak pasa eta Natalie askoz hobeto konpontzen zen mutilarekin, eta bi anaien aitarekin denbora luzea pasatzen zuen zaldian ibiltzen, biei asko gustatzen baitzitzaion. Jean, ordea, ez zitzaion oso ondo erortzen, neskameak oso gaizki tratatzen zituen eta oso pertsona faltsua zirudien.

Ekainaren hamabosta zen, Natalie eta Pierre buelta bat ematera joan ziren Pariseko kaleetatik.

– Oso pertsona ona eta alaia zara eta izugarri polita, badakit orain dela gutxi ezagutu zaitudala bainan zutaz maitemindu naiz eta zurekin harreman bat edukitzea gustatuko litzaidake baieztatu zion.

Natalie Pierreri hurbildu zitzaion eta ezpainetan muxu bat eman zion.

Jeanek honen berri izan zuenean haserre bizian jarri zen, eta zerbait pentsatu behar zuela esan zion bere buruari eta honela egin zuen.

Gau horretan, Jean Natalieren gelara joan eta Natalieren lepokoa hartu, eta bere anaiaren zaldian ibiltzeko txaketa gorde zuen lepokoa.

Hurrengo egunean, Natalie esnatu eta konturatu zenean bere lepokoa ez zegoela negarrez hasi eta anaien aitarengana joan zen. Aitak horrela ikustean Natalieri kezkatu egin zen.

– Natalie, zer gertatzen zaizu? Ondo al zaude?

– Ez. Nere amak oparitu zidan lepokoa galdu dut ez dago nire gelan eta ni ziur nago, nere gelan utzi nuela.

– Lasai Natalie, zer edo zer egindo dugu, bainan aurkituko dugu!

Eta haserre bizian aita neskameen bila joan eta etxea, lorategia, ukuilua... edonon begiratzeko bainan aurkitzeko eskatu zien neskameei.

Natalie, Pierreregana joan zen, bainan Pierre zaldian ibiltzen zegoen. Hala ere, Natalie beregana joan eta besarkada bat eman zion. Mutilak galdetu zion zer gertatzen zitzaion bainan Nataliek ezin zuen erantzun, negarrez baitzegoen. Orduan, mutilak txaketa kendu eta Natalieri ipini zion hotz egiten baitzuen. Halako batean,

Nataliek txaketa eskuak sartu zituenean, bere lepokoa aurkitu zuen. Lepokoa hartun eta txaketa lurrera bota zion.

– Zer arrazoi daukazu nire lepokoa kentzeko, badakizu niretzako oso garrantzitsua dela. Nola izan zara gai niri hori egiteko? Ni oso ondo jokatu dut zurekin!

– Natalie ni ez naiz izan, ni ez nintzateke gai izango zuri kalterik egiteko. Benetan ni ez naiz izan.

– Ez dakit sinestu, pentsatu egin behar dut.

Erantzun zion Nataliek eta gonak altxatuz korrika joan zen etxera, bere logelera.

Uztailak bat zen, oso egun polita egiten zuen Pariseko kaletatik paseotxo bat emateko eta Jeanek aprobetxatuz Natalie bere anaiarekin haserre zegoela, Natalieri Parisetik paseotxo bat ematera gonbidatu zuen. Natalie zalantzan egon zen, baina azkenik baietz erantzun zion.

Parisetik zeudela eta Natalie denda bat begiratzen zegoela, Jeanek muxu bat eman zion baina zitu Nataliek izugarritzko masailekoa jo zion eta alde egin zuen.

Etxera itzuli zenean, Pierre ikusi zuen eta besarkada eta muxu bat eman zizkion.

– Barkatu, ziur nago zu ez zarela izan lepokoa lapurtu didana, seguruena zure anaia izan dela, gaur Parisen niri musukatzen saiatu da. Barkatu, barkatu ez dut inoiz gehiago zugarri fidagaiztuko.

Orduan mutilak muxu bat eman zion, eta egun horietan beraien bizitzako momentu zoragarrienak bizi izan zituzten, arratsaldero oso maiteminduta izozkia hartzen baitzuten Pariseko kafetegi ezagunean.

Uztailak 5a zen, eta aitak bi anaiak elkartu zituen bere bulegoan esanez bi egun barru Bigarren Gerrate Mundialean parte hartu behar zuela Frantziak. Aitak Pierreri begiratu eta esan zion neskak Espainiara joan behar zutela.

Mutila korrika joan zen bere aitaren langelatik bere begi marroietatik malkoak erortzen zitzaizkiola Natalierengana. Natalie gelan zegoen aulki batean eserita, neskameak ilea orrazten zion bitartean, Natalie konturatu zenean mutila gelara sartu zela neskameari joateko esan zion, bere tonu goxoan. Natalie, neskamea joan zenean mutilarengana hurbildu eta besarkada bat eman zion. Baina mutilak modu zakar batean baztertu zuen beregandik. Eta Natalieri honela esan zion tristeki:

– Natalie, Espainiara joan behar duzu, Bigarren Gerrate Mundialean parte hartu behar du Frantziak eta emakume guztiak Espainiara joan behar dute.

– Ez gara inoiz gehiago ikusiko...– erantzun zuen mutilak erdi negarrez.

Natalie negarrez besarkada bat eman zion, eta horrela egon ziren denbora luzean.

Bainan Natalie pauso bat atzera eman eta honela esan zion mutilari:

- Lasai egon, gerratea bukatzen denean ni zuregana etorriko naiz Frantziara.
- Nik, hemen itxarongo zaitut, gure kafetegian.

Hurrengo egunean, Nataliek bere soinekoak maleta batean jarri zituen eta lorategira atera zen, bi anaien aitari besarkada handi bat eman zion, Jeaneri bi muxu eman zizkion eta, azkenik, Pierreri muxu haundi bat eman zion.

Autora igo eta leihotik begiratu zuen, orduan burura etorri zitzaizkion etxe horretan pasatako momentu zoragarriak.

Natalie Espainira joan eta etxe eder batean bizi izan zen, nahiz eta inoiz ez ahaztu Pariseko etxea.

Urteak pasa ziren eta Bigarren Gerrate Mundiala bukatu zen. Nataliek honen berri izan zuenean Frantzira joan zen bere lehenagoko etxera, baina han ez zegoen ezer, etxea guztiz txikituta zegoen, ez zegoen lorategirik jada, dena lurra zen eta animaliarik ez zegoen.

Pariseko erdigunera joan eta mutilarengatik galdetzen egon zen, baina jendeak ez zekien ezer, Natalie Espainiara bueltatu behar zuen nahi eta nahi ez.

Nataliek 30 urte zituenean mutil bat ezagutu zuen, ez zegoen berataz maiteminduta, baina garai hartan emakumeak ezin zuten senargabe geratu, eta horrela izan zen; Natalie berarekin ezkondu eta hiru ume eduki zituen.

Pierrek Frantziatik Natalieren bila egon zen, baina ez zuen aurkitu eta Natalieren arazo berdinean aurkitu zen. Ez zuen familiarik, bere aita gerratean hil egin zen, eta bere anaia ez zuten aurkitu, eta, neska batekin ezkondu zen familia bat osatzeagatik.

Urte asko pasa ziren, Natalie zaharra zen eta bere familiarekin Frantziara bizitzera joan zen.

Udazken arratsalde batean Natalie kafetegi ezagunean zegoen izozkia hartzen, leihotik begira eta orduantxe ikusi zuen Pierre. segituan ezagutu zuen bera zela, eta mutilak berdin. Natalie kafetegitik atera eta besarkada bat eman zuten elkarri, eta arratsalde horretan kontatu zioten elkarri urte horietan egindako guztia.

– Eta bukatu da!- esan du aitonak.

Orduan nik galdera bat galdetu diot nire aitonari ipuinari buruz:

– Aitona, istorioan agertzen den mutilak zure izen berdina du!

Eta aitonak irribarre txiki batekin begiratu nau...



## Hiru orinak

↔ Mainer Alfonso Izagirre

Kaixo! Ni Pepa Balmes naiz eta 22 urte ditut. Orain nire bizitzako unerik zoriontsuena pasatzen ari naizen arren, nire bizitzan oso gaizki pasa dut eta egunero idazten nuen egunerokoan. Hortaz, nire egunerokoa irakurriz nire bizitzako historia kontatuko dizuet. Zer iruditzen?

Jakin mina baduzu, segi irakurtzen.

Ni XIX. mendearen bukaeran jaio nintzen. Nire ama bizitza guztian zehar emagin lanetan pasa zuen etxe batean eta nire aitak ni jaiotzean alde egin zuen, nire ama bertan behera utzita.

Oso neskato alaia eta imajinazio handikoa nintzen eta nire amaren lana jarraituz ni ere emagin bihurtu nintzen etxe berean. Baina, bertan, nire bizitzako hutsegite handiena egin nuen: etxaldeko gizonarekin maitemindu nintzen eta nire bizitzako gizona zela pentsatu nuen.

Baina errealitatea oso desberdina izan zen, nik eta etxaldeko gizonak ume bat eduki behar genuen eta hala izan zen, umea eduki nuen. Baina etxaldeko gizonak emaztea zuen eta bera ere haurdun zegoen. Biak momentu berean erditu genuen, baina toki desberdinetan, berak etxaldean erditu zuen eta nik basoan. Nire haurrak, nire antzera, hiru orin zituen bizkarrean hiruki bat eginez. Gaua basoan pasa nuen nire haurra besoetan manta batekin estalita, baina esnatzean beste haur bat nuela besoetan konturatu nintzen, ez zituen hiru orinak bizkarrean eta gainera hilda zegoen.

Pepa lotan egon zen bitartean, Karlos Kastrok, hau da, etxaldeko gizonak, Pepari umea kendu egin zion hau esnatu gabe eta bere emazteari eman zion.

Ni etxaldera abiatu nintzen nire haurraren bila eta bertan aurkitu nuen etxaldeko andrearen gelan. Andrean lotan zegoen, beraz nik nire haurra hartu eta ihes egin nahi izan nuen, baina ezin izan nuen. Andrea esnatu egin zen eta etxaldetik irten behar nuenean leihora irten zen eta oihuka hasi zen:

– Nire haurra! Nire haurra hartu du! Nire haurra lapurtu nahi du!

Etxaldean lan egiten zuten beste batzuek umea eskuetatik kendu eta egundoko jipoia eman zidaten. Bertan konturatu nintzen Karlosek ez ninduela maite, ez baitzuen zirkinik egin jipoitzen ninduten bitartean. Etxaldeko lankideek hilda nengoe-la pentsatu zituenean, alde egin zuten, baina orduan nire ama etorri, zauriak sendatu eta alde egiteko eskatu zidan, ahal nuen urrutira alde egiteko, ez itzultzeko eta izenez aldatzeko. Baina nik honela erantzun nion:

– Alde egingo dut, baina ez dut izena aldatuko, ni Pepa Balmes naiz eta izango naiz. Eta orain alde egingo dut, baina nire haurraren bila itzuliko naiz. Ez ahaztu.

Eta halaxe egin nuen. Bidaia luze bati ekin nion, noraezean ibili nintzen herriz herri emagin moduan, herri bakoitzean egun batzuk igaro eta beste batera joanez. Baina behin andre bat ezagutu nuen basoan, zalgurdian zihoan eta diruduna zirudien. Oso urduri eta aztoratuta zirudien, beraz, nire maletatik sendagai batzuk atera eta eman egin nizkion.

– Zer egiten duzu hemen?– galdetu zidan, eta nik honela erantzun nion:

Emagin bat naiz eta lan bila noa hemen gertuko herrialdera.

– Begira zer ondo, ni etxalde bateko andrea naiz eta haurdun jende asko dago. Nire etxaldean lan egin dezakezu eta hilero ordainduko zaizu. Gainera, bertan gera zaitzke lotan. Lanarena onartzen dut, baina ez naiz zure etxaldean lotan geratuko.

– Ongi da, beraz, hamar egun barru etxaldean ikusi nahi zaitut.

Bost egun pasa ondoren herrixkara heldu nintzen eta ostatu batean hartu nuen gela. Oso atseginak ziren ostatukoak eta alabaren oso lagun mina egin nintzen hurrengo egunetan.

Herrian bueltatxo bat ematen ari nintzenean gerratik zetozen soldadu batzuk ikusi nituen eta soldaduen burua nireganantz hasi zen ibiltzen. Une hartan, mugitu ezinik bezala geratu nintzen, ez nuen sentitzen ari nintzena berriro sentitu nahi. Karlos Kastrokekin maiteminduta nengoeneko sentipen berdinak nituen, eta ez nuen berriro ere maitemindu eta saldua sentitu nahi; izugarria izango zen.

– Kaixo, Tristan nauzu– esan zuen erreberentzia bat eginez.

– Kaixo, ni Pepa nauzu– eta horrela afaltzera gonbidatu ninduen eta gero etxera joan zen.

Ostatuko alabaren, Emiliaren, oso laguna nintzen ordurako eta afariaren ondoren nire gelara igo eta hitz egiten egon ginen.

Gero lotara joan nintzen hurrengo egunean etxaldean lanean hasi behar bainuen.

Goizean goiz jaiki, bainu bat hartu eta ostatura jaitsi nintzen gosaltzera. Emiliak ere nirekin gosaldtu zuen. Etxaldea oso ikusgarria zen, baina bertako giroa ez zen batere egokia.

Etxaldeko andrea, Frantzisko Montenegro, bere semearen zain zegoen eta bertan ere Angustia andrea bizi zen, semearen emaztea. Angustia andrea haurdun zegoen eta oso delikatua zen. Bestalde, haur bat ere bazuen 5 urte ingurukoa, Martin izena zuen. Ni Martinekin hitz egiten ari nintzen bitartean:

– Aita! Aita! Iritsi zara! Ze ondo!– egin zuen oihu Martinek.

– Martin, seme! Zenbat hazi zaren!– esan zuen aitak.

Berriro ere aho bete hortz gelditu nintzen, Tristan zen Martinen aita. Tristan niri begira gelditu zen, ni berari begira, orduan burua makurtu eta bertatik alde egin nuen.

Gauean, afaldu ondoren Tristan nire gelan azaldu zen eta niregatik sentimendu bereziak zituela aitortu zidan. Ni oso urduri nengoen.

Egun batean, erreka ondoan geundenean ni, etxaldeko beste lankide bat eta Martin, Martin lurrera erori zen. Zauria ikustera joan nintzenean, nik duela urte asko erditu nuen hauraren hiru orinak zituela jabetu nintzen.

Korrika alde egin nuen ostatura. Emiliarekin hitz egin nuen, aurretik gertatutako guzti hori azaldu nion. Berak besarkada handi bat eman eta lo egiteko esan zidan, hurrengo egunean lasaiago hitz egingo genuela. Eta horrelaxe egin nuen, ohera joan nintzen baina ia gau osoa itzarririk eman nuen.

Hurrengo egunetan, gauza gehiago jakin nuen, adibidez: Karlos Kastro, Tristannen anaia zela eta bere etxaldeko sute batean hil zela. Angustias andrea sute horretan egon zela eta baita Martin ere.

Orduan ulertu nuen zer gertatzen zen, Angustias eta Martin ziren sute horretako bizidun bakarrak eta orduan Angustias andreak Martin bere umea zela esan zuen. Zeren Tristan ez zen Martin jaio zeneko erditze aldiaren egon, gerratean baitzegoen.

Emiliak Tristani dena kontatu zion ni konturatu gabe. Handik 10 egunetara Angustias andreak haurdunaldia zela eta aztoratu egin zen, ia bere buruaz beste egin zuen. Horren ondorioz, zoroetxe batean sartu zuten.

Tristan oso goibel zegoen, baina Emiliak kontaktutakoa egiaztatu nahi zuen; beraz, nirekin hitz egitera etorri zen. Berriro ere, afaltzera gonbidatu ninduen, baina afal ondoren ez zen etxaldera joan aurrekoan bezala, ostatuan gelditu zen eta konkretuki nire gelan. Frantziska andreak ez zuen honetaz ezer jakin, soilik Tristan egun batzuk barru beste herrialde batera joango zela Martinekin, nirekin eta beste jende batzuekin bere etxaldea eraikitza.

Eta horrela izan zen, handik gutxira Tristan, Martinekin, nirekin eta beste etxaldeko batzuekin beste lurralde batera joan ziren lasai eta pozik bizitzera, haietako batzuk; Emilia, bere aita eta beste batzuk ere joan ziren.

Izugarrizko etxaldea egin genuen denen artean eta oso pozik bizi gara orain.

Hau izan da nire historia. Gustatu al zaizue? Gustukoa izan baduzue, pozten naiz.



## Mendiaren indarra

❖ Nerea Arregi Ubetagoiena

Nafarroako herri txiki batean, Pedro izeneko mutil bat bizi zen. Bere gurasoekin bizi zen eta hamasei urte zituen.

Bera eskolan zebilen ikasten, eta bere aitak, berriz, artzain modura egiten zuen lan. Pedro egunero joaten zen eskolara, baina berak ez zuen ikasteko gogorik, eta aitarekin hasi nahi zuen lanean, baina aitak ez zion uzten, oraindik txikia zela esanez.

Asteburuetan joaten zen Pedro bere aitarekin mendira berari laguntzera. Aitak, mendian zuen borda handi bat, eta han berrogei bat ardi zituen. Egun batean, Pedroren aita gaixotu egin zen, eta ezin zuenez mendira igo ardiei jana ematera, Pedro hasi zen lanaren ardura hartzen. Aita gaixotasunaren ondorioz hil egin zen, eta mendiko bordaren erantzukizuna berak hartu zuen.

Lehenengo egunetan eskolatik irten ondoren, joaten zen mendiko bordara, baina ez zuenez denbora asko izaten, amarekin hitz egin ondoren erabaki zuen eskola uztea. Pena handia zuen lagun asko egin baitzituen bertan, baina berari asko gustatzen zitzaion mendiko lana. Hasieran goizean joan eta gauera arte egoten zen mendian, baina pixkanaka bordan konponketa batzuk egin, eta bertan egin zituen logela eta sukalde txiki bat. Bertan hasi zen bizitza egiten eta gutxitan jaisten zen herrira.

Gero, ardiez gain, zaldi batzuk ere jarri zituen. Oso pozik bizi zen berak beti miretsi izan zuen mendian. Pixkanaka hasi zen gazta egiten, ikasten, eta gero asteen hiru egunez herrira jaisten hasi zen, bere esne eta gaztak denda batzuetan banatu eta saltzeko.

Egun batean horietako denda batean neska polit bat ezagutu zuen, Elena. Elena, neska polita zen eta beraien arteko harremana sendotuz joan zen. Oso gustura egoten ziren biak, baina Pedroren lan baldintzak ez zion uzten nahi adina denbora elkarrekin egoten.

Urte batzuk pasa ondoren, Elenak berarekin herrira bizitzera joateko eskatu zion Pedrori, baina Pedrok pentsatu eta erantzungo ziola esan zion.

Pedrok egun batzuk pasatu zituen bere bihotzeko mendian, buruari bueltak ematen, eta ez zekien zer erantzun.

Elena oso gustukoa zuen, baina mendiak beregan zuen eragina oraindik handiagoa zen.

Asko hausnartu ondoren, bere erabakiaren berri Elenari ematera joan zen. Bazkaltzera gonbidatu zuen Elena eta esan zion asko maite zuen arren, berari mendiak ematen zion indarra behar zuela eta ez zuen herrian bizi nahi. Bere aitak erakitako bordan jarraitu eta aitak hasitako lanari eutsi.

Elenak ulertu zuen Pedro menditik atera ez izana, lagun bezala jarraitu zuten, eta elkar ikusten zuten menditik jaisten zenean.

Pedrok ez zuen bordan ez argirik, ez telebistarik baina berarentzat garrantzitsuagoa zen mendiko edertasun eta lasaitasuna.

Gauza batzuek ezin direla diruarekin erosi pentsatzen zuen. Zoriontsu bizi da gaur egun Pedro bere mendiko bordan.

**DBH**

3. ETA 4.  
MAILAK

## **Amasa-Villabona**

bertso eta ipuin lehiaketa  
**2011**

### BERTSOAK

---

**“Leihotik begira”**

Ane Geresta Azurmendi 40

---

**“Ispiluari beldur”**

Haritz Mujika Lasa 41

---

**“Bizitzaren parada”**

Leire Olazabal Arrastoa 42

---

**“Oialume”**

Julen Esnaola Zabala 43

---

### IPUINAK

---

**“Scott eta Neswcastleko kondaria misterioitsua”**

Aitor Gisasola Iraola 44

---

**“Benetako altxorra”**

Aitor Ormazabal Zubeldia 54

---

**“XX. mendeko Gauguin”**

Unai Iparragirre Quilez 61

---



## Leihotik begira

❖ Ane Geresta Azurmendi

Jarria nago begira  
Frantzitik Euskal Herrira  
Nire begien distira  
Zuzenduaz urrutira  
Giltzapetua ez izateko  
Alde\_egin nun atzerrira  
Orduko nire ahaleginak  
Hutsean gelditu dira  
Barrote hauen barrualdetik  
Joan nahi dut sorterrira  
Amesten dugun askatasuna  
Iritsiko den tokira  
Garaipean ikur bihurtuko den  
Euskaldunon aberrira.

Urte batzuk aurreratuz  
Oroitzapenez oroitzuz  
Malkoak begiei lotuz  
Tristurarekin mozkortuz  
Aiton-amonek eskainitako  
Babesa gogoan hartuz  
Momentu batez akordatu naiz  
Hango baratza ta ortuz  
Hainbat urtetan egin den lana  
Fruitu mamitsu bihurtuz  
Aske izatea lortuko dugu  
Gu guztiok borrokatuz  
Euskaldun denok behar ditugun  
Baldintzak aldarrikatuz.

Zigorrak eta tortura  
Bihurtu dira ohitura  
Gorrotoa ta tristura  
Datoz gure ingurura  
Lehen erabat zuria zena  
Beltzeraino pasatu da  
Euskal herria ezabatzea  
Besterik ez dute gura  
Herri baldintzak defendatzea  
Bihurtu zaigu kultura  
Eskubideen jabe izateko  
Sortu ginen gu mundura  
Aske izatea lortuko dugu  
Arrano beltzen modura.

Hau idatzi bitartean  
Ziega hontako atean  
Inspirazio betean  
Ohartu naiz bat-batean  
Euskal Herriko historiari  
Pixka bat begiratzean  
Zer aldaketa izan ditugun  
Euskaldunon gizaratean  
Zenbat lagun on eta senide  
Galdu ditugun bidean  
Lehen ondoan genituenak  
Ez daude gure artean  
Gerra hau irabaztean.



## Ispiluari beldur

◆ Haritz Mujika Lasa

Txiki txikitatik nien,  
modeloei errepara,  
eta geroztik egon nahi,  
maniki haien gisara;  
baina nituen kiloak,  
niretzat zirenez traba,  
flakatzeko prozesuan,  
jateari nion laga.  
Ispilua ustez lagun,  
baina etsai zuhurra da,  
nahiz ingurukoek esan:  
“zu gaixotzen ari zara”.  
Zoriontasuna zer den,  
ere ahaztu zait jada,  
nire min denen erruki  
da amaren begirada.

Ni gizen ikusten nintzen,  
inor baino gizenago.  
Ondoren jarri ninduten,  
dieta zurrunen esklabo,  
otorduko entsalada,  
eta urari bi trago,  
ta gero komun zuloan  
bulimiaren naufrago.  
Hezur ta azal hutsean  
egon naizenez luzaro,  
autosuntsiketa nire  
barne erraietan dago,  
baina ikasi dut eta  
orain bizi gosez nago:  
Bizitza bat dagoela,  
ispilutik haratago.



## Bizitzaren parada

↔ Leire Olazabal Arrastoa

Nire lurralde kuttun hartatik  
aldegitea zen zaila  
baina aldegin beharra nuen  
bizi berri baten bila  
eguneroko bizitzan hiltzen  
zen bertan biztanle pila  
soldaduk sartu eta boNbekin  
ni nintzen laister hila  
mugi ez banintz galduko nuen  
bizitzaren bataila.

Hasi genuen gure bidaia  
nabarmena zen ikara  
gure artean zabaldua zen  
bizi nahiaren aupada  
bidaia luze ta arriskutsua  
izango zen beharbada  
baina gerokoa pentsatu eta  
hartua nuen bultzada  
bizitzen hasi nahi izan nuen  
pertsone baten erara.

Denbora asko bidaian pasa  
ta iritsi zen eguna  
hemen guztiak koloreagatik  
jo ninduten erruduna  
norberak bere burun pentsatu  
ez du laguntzen beharduna  
nire herrian pobrezia nuen  
hemen nun bakartasuna  
bizitza hura ez zen Iranen  
nik imajinatzen nuna.

Bizi duina lortua nuen  
denbora zela medio  
momentu gogor eta beltz haiei  
esan nien nik adio  
lehen gertatua ahaztu behar  
zenbat tristura, herio  
bere burua zigortzen duna  
bada nahiko arerio  
denborarekin lurrak orori  
merezia\_emango dio.

Bizitza berri honi\_ekitean  
helburu bat dut buruan  
iragan beltza utzi ondoren  
berpiztea segituan  
zorigaiztoko izango nintzen  
lehen bizi nintzen moduan  
aurrera egin beharra dago  
ez negar egin munduan  
zuri laguntza emango dizun  
gutxi dago inguruan.



## Oialume

❖ Julen Esnaola Zabala

Sartu ordurako do  
aurren segurata,  
jertsia uztekore  
guardarropa dauka,  
barran jartzen dizue  
nahi aña Kбата,  
juerga asegurauta  
Oialume baita.

Nola gehienak geran  
edadez antzeko  
lotsik ezta izaten  
salsa dantzatzeko,  
nahizta ibiltzen geran  
gu mozkorrak seko,  
zaharrik ez da azaltzen  
gu izorratzeko.

Nesketan beti gera  
gu behintzat saiatu,  
gerturatu haiena  
ta gero dantzatu,  
suertea alde badeu  
igual muxukatu,  
mutilak jaio ginen  
ezin deu aldatu.

Balantzaka bazuaz  
eutsi lagunari,  
hurrenguan gutxio  
eman edanari,  
denbora kontun hartu  
beitu orduari,  
etxera iristerako  
oilarra kantari!



# Scott eta Newcastleko kondaira misterioetsua

↔ Aitor Gisasola Iraola

## SARRERA

Ingalaterrako Newcastle hirian bazegoen kondaira bat altxor misterioetsu bati buruzkoa, bere benetako historia gutxi batzuk ezagutzen zuten eta are gutxiagok bizitu. Kondairak zioen bazela altxor misterioetsu bat munduko izkinen batean, baina hura aurkitzeko abiapuntua hiri eder honetan zegoela eta beraz newcastledarrek soilik aurki zezaketela altxor preziatu hori. Gehienek zioten gurasoek seme-alabei kontatzeko istorio inozo bat zela, hainbeste ikerketen ostean ez zutelako ezer aurkitu, baina kondairak bizirik ziharduen bitartean auskalo zer gerta litekeen.

## 1. KAPITULUA

Scott Parker eskolatik irteteen etxera abiatu zen egunero lez. Askaria hartu eta arropak aldatu ostean futbol entrenamendura joateko intentzioarekin. Scott 15 urteko mutil gazte bat zen, Newcastlen bizi zen eta egunen batean St James' Park estadioan jokatzeko bere ametsa. Familia xumekoa zen, bi anaien artean zaharrena, oraingoz ez zuten arazo larririk aurrera ateratzeko baina ezta dirurik aurrezteko aukerarik ere. Gorputzez nahiko altua eta argala zen, ilehoria eta begi urdinekoa. Izatez aldiz buruargia zen, bizia, irekia besteentzako eta erabat konfiantzazkoa. Gainera oso errealista zen eta normalean ez zuen superstizio eta horrelako sineskerietan sinesten, baina bazen pentsaera bat bere errealismoa hausten zuena: Newcastlen abiapuntua zuen kondairaren egiazkotasunean sinestea.

Scott ez zekien egun hau berezia izango zela, bere errutinatik at kokatuko zuela eta benetako abenturazale bihurtuko zuela. Merseyside izeneko zubia igarotzen hari zela hasi zen ohartzen egun hau besteekiko desberdina zela. Egun hura egun seinalatua zen eta Scott aldiz mutiko aukeratua. Zubia oso zaharra zen, inork ez zuen ikusi hura noiz izan zen eraikia eta marrazki bitxi batzuk zituen eginak erdialdean, lingote moduko batzuk ziruditen. Mutikoa erdirantz hurbiltzen zihoala zerua iluntzen joan zen. Bat-batean izugarritzko zaparrada hasi zuen eta honek

Scott erabat harriturik utzi zuen, hiruzpalau minutu haurretik izugarrizko eguzkia baitzegoen. Gaztea erdira iritsi eta marrazki horietako bat zapaltzean, izugarrizko tximista bota zuen, mutikoa itsuturik geratu zen momentu hartan, belauniko lurrean jarri eta konortea galdu zuen.

Esnatu zenean ez zen gogoratzen ez bat-bateko zaparradaz ezta tximista bortitz hartaz ere. Ez zekien zergatik baina beldur zen, orduan bere barnean, arimatik zetorren oihu bat entzun zuen buruan:

*Hasiera! Hasiera! Hasiera!*

Geroz eta ozenago entzuten zuen, arima hura argitu-gabeko misterioaren hasiera zela geroz eta ziurrago egongo balitz bezala. Orduan Scottekin, bira eman eta inoiz bertan ikustea espero ez zuena ikusi zuen, marrazki bitxiaren gainean benetako urrezko lingote batzuk zeuden. Baina hori ez zen guztia, haien atzean burezur bat zegoen eta hori gutxi balitz zatarki irekitako eskutitz bat barnean mezu batekin. Lehenik eskutitza hartu eta barnean zegoen mezua irakurri zuen:

*Zeuk erabaki: aberastasuna ala misterioa.*

Scottek bere adimenari esker segituan ulertu zuen mezuaren barne esanahia. Bi aukera zituen, alde batetik lingoteak hartzea, horrela bizi osorako behar zituen aberastasunak lortzeko eta bestetik burezurra hartu eta aztertzea, Newcastlego kondairarekin benetako erlazioa hartzen baitzion. Ez zuen gehiegi pentsatu beharrik izan, nahiz eta agian ez izan erabakirik zentzudunena, berehala zituen eskuak burezur misterioaren gainean. Hura ukitzean lingoteak desagertu eta ke beltz bat agertu zen. Keak mugimendu arraro batzuk egin ostean beste mezu bat agerriarazi zuen, oraingoan kea letra desberdinetan ordenatu eta esaldi irakurgarri batean bihurtu zen.

*Bidaiaren hasiera.*

Orduan bere sinesmenak egia zirela konturatu zuen, altxorren misterioaren bidaiaren barnean zegoen eta ahal zuen guztia egingo zuen ehunka urtetan ezkurturik egon zen misterioa desfraztzeko. Bi aldiz pentsatu gabe burezurra eskuetan hartu eta ikertzen hasi zen. Bere ustez burezurra esanahi sinboliko bat zuen, beldurraren esanahia. Bere ez zen beldurtu ordean ausarta zen eta orain bere erabakiaren ondorioz zetozen ekintzei aurre egin behar zien. Lehenik burezuraren ahotik eskua sartu zuen barnean zerbait ote zegoen jakiteko. Ez zuen ezer aurkitu. Ondoren pentsatu zuen burezurra ezkatututa kode bereziren bat egon zitekeela. Hainbat pelikuletan ikusi zuen bezala, burezurari hautsa kentzea bururatu zitzaion. Oraingo honetan ere ez zuen ezer aurkitu. Bat batean berriro ere eguzkia ateratu zuen. Eguraldi aldaketa honetan egon zen gakoa, eguzki izpiek burezurra jokatzean Scottekin distira bat sentitu zuen begietan. Orduan hura eguzkitan jarri eta zerebeloaren azpian beste mezu bitxi baina ulerkor bat irakurri zuen:

*Bihar. Hondartza. 18:00.*

Argi zegoen egun eta orduarena, baina kokalekuak hainbat zalantza sortarazten zizkion Scotti. Newcastlego hirian bertan ez zegoen hondartzarik, egia zen hiria kostaldetik oso gertu zegoela eta kanpoaldean bazeudela hareazko hondartzak. Baina senak esaten zion kondairak ez zuela pauso edo froga berri bat edozein gunetan jarriko, tokiak espeziala izan behar zuela, hau da aurkitua izateko zailtasun puntu bat izan behar zuela. Ondorioz, hiri inguruetako hondartzak arruntegiak iruditu zitzaizkion eta bera egona zen hondartza itxurako guneren bat gogorarazten saiatu zen. Buruari pentsakor hainbat bira eman ostean berriro ere argia ikusi zuen tunelaren beste aldean. Txikitan aitarekin joaten zen toki berezi batez ohartu zen, bertan pala eta kuboaren laguntzaz hondarrezko gazteluak ibiltzen jolasten ziren. Aitak esaten zion bera txikia zenean kamioi batzuk etorri eta hondarra metatu zutela gune horretan garai hartako hurrek denbora librean bertan jolastu ahal izateko baina gaur egun nahiko abandonatua zegoela. Ondoan Tyne ibaia igarotzen zenez aitak toki berezi hari hondartza deitzen zion. Ez zegoen dudarik, hura toki berezi bat zen eta gainera jende askok ezagutzen ez zuena, hondartzaren esanahia argitu zuen.

## 2. KAPITULUA

Scott nekaturia zegoen horrenbeste bat-bateko ekintza misterioaren agerpenaren ondorioz, beraz etxera joan eta biharamun arte deskantsatzea erabaki zuen. Ezin izan zuen lo gehiegirik egin, alde batetik urduri zegoen baina bestetik izugarritzko gogoak zeukan misterioari buruz gehiago jakin eta enigma gehiago ebazteko. Hurrengo egunean esnatzean, guztia ametsa ote zen pentsatu zuen, baina segituan baztertu zuen hipotesia ohearen azpian aurreko egunean aurkitutako burezurra aurkitzean. Kondairaren barnean erabat murgildurik zegoen eta egun hura aurreko bezain zirrargarria izango zen.

17:00-etarako "hondartzan" zegoen. Gogoan zuen tokia ez zen batere aldatu igarotako urte horietan eta guztia gogorarazten zuen bezala zegoen. Bertan itxaroten hari zela ezusteko bisita bat izan zuen. Aiton bat azaldu zen, errenka zeterren eta ondoan jarri zitzaion. Scott baina baxuagoa zen eta geratzen zitzaion ilea nahiko zuritua zuen. Nahiko itxura beldurgarri zeukan batik bat hankamotza zelako eta beraz ezkerreko oinaren orde egur pusketa bat zeramalako. 10 bat minutuko isilunearen ostean, aitonak Scott erabat txunditu zuen hauxe galdetzean:

- Zuk ere ikusi ahal duzu mezua?
- Zein mezu aitona, ez dakit zertaz ari zaren. – erantzun zion Scottek.
- Ez egin inozoarena gazte, nik ere 15 urte eduki nituen eta zuk atzo ikusi zenuen burezurra aztertu nuen.

– Baina, nola liteke?– Scott harrituta zegoen, ez zuen espero inondik inora horrelako erantzunik.

– Gazte, 50 urtez behien aukeratu bat agertzen da Newcastlen. Ni izan nintzen aurrekoa eta orain misterioa aurkitu duena zeu zara. Zeuri laguntzeko etorri naiz.

– Orduan, zeuk deszifratu zenuen Newcastlego kondaira? – galdetu zion Scottek.

– Ez hain zuzen. 3 froga gainditu behar dira azken altxorrera iristeko eta neu bigarrengean geratu nintzen. Marrazoak nire oina jan eta ia bertan utzi nuen bizia, zorte handia izan nuen hartatik bizirik irteteaz.

– Eta lehenengo, zein da lehen froga? – gaztea asaldatuta zegoen.

– Gaur seietan, mezuak zioen bezala, hieroglifiko bat agertuko da. Ez dakit ziur non agertuko den baina 60 segundo izango dituzu hura askatzeko. – esan zion aitonak. Baina lasai badakit erantzuna eta: Erromako zubia.

– Eskerrik asko laguntzagatik. Gera zaitezke nirekin abentura osoan zehar aito-na? Laguntza handia izango zinateke eta ziur nago bidaiaren amaieraraino iritsi nahi duzula.


– Bai noski, neure ametsa kondairaren misterioa askatzea da eta ez dut etsiko hura argitu arte. Zein da zeure izena mutiko? Neurea Bill Wallace da baina Marrazo dei diezadakezu.

– Ni Scott naiz, urte askotarako.

### 3. KAPITULUA

Scottek gauzak askoz argiago zituen orain. Ondoan esperientzia handiko gizon bat zeukan eta hau laguntza handiko izango zen, baina argi zegoen bidaia ez zela umeen jolas bat izango eta hainbat arrisku jasan behar izango zituela helmugara iristeko.

Seiak iristean, berriro ere eguraldi aldaketa bortitz bat gertatu zen. Izugarrizko haizea atera zen eta hareak, aurreko egunean keak egin zuen bezala, mugimendu bitxi batzuk egiten hasi zen. Bat-batean hareazko erloju bat irten zen ezerezetik baina hori ez zen guztia. Erlojuari lotuta dinamita bat zegoen eta honek Newcastle osoa desagerrarazteko indarra zuen. Harea artean aldiz hieroglifiko moduko bat agertu zen aitonak zihoen bezala. Baina Marrazo ez zegoen guztiz zuzen, Scottek aurretik susmatu zuena gertatu zen, hau da, hieroglifikoa 50 urteren ostean aldatu egin zen. Bi zati zituen, alde batetik erantzun beharreko galdera eta bestetik irudia. Galdera honako hau zen: Non dago marrazoa? Hondarretan aldiz honako marrazki hau agertu zen:



Segundoak aurrera zihoazen eta ez zegoen galderari erantzuna emango zion lekurik. Hura ote zen amaiera? 15 segundo faltan ordea Marrazok asmakizunaren lehenengo atala askatu zuen maisuki.

– Liverpool! – egin zuen oihua. – Baina hori ez da azken erantzuna, parentesia-  
ren ondoren datorrena ere askatu behar dugu! Animo Scott, pentsatu bizkor bes-  
tela geureak egin du eta.

5 segundo besterik ez ziren geratzen eta Scottek birritan pentsatu gabe, den-  
borarik ez baitzegoen, galderaren azpian bere eskuez baliatuz honako hau idatzi  
zuen:

### *Mythictown.*

Erlojua bat-batean suntsitu eta beste eskutitz ireki bat agertu zen airean flota-  
tzen. Hieroglifikoa askatzea lortu zuten baina horretarako pentsaera sakon baten  
beharra izan zuten bi abenturazaleek. Lehenengo zatia erraza izan zen Marrazo-  
rentzat futbol eta musika zale amorratua baitzen. Lehenengo zatiaren lehen atala  
Liverpool Futbol Taldearekin zegoen erlazionatuta, 5 Champions League dituen  
futbol talde bakarra delako gaur egun nahiz eta beste talde batzuek txapel gehia-  
go ala gutxiago izan. Lehenengo zatiko bigarren atalean aldiz The Rolling Stones  
rock and roll-eko talde estatubatuarraren mundu guztian ezaguna den ikurra ager-  
tzen zen. Kasu honetan desberdintza bat agertzen zen eta talde famatu honen  
aurkako edo etsai nagusienak, beti ere mundu profesionalaz hitz eginez, The Bea-  
tles talde Ingelesa izan zen. Hain zuzen talde hau Liverpooleko 4 gaztek sortu  
zuten eta hiri hau beti izan da erlazionatua rockeko talde honekin. Bigarren zatiak  
aldiz aurreko biak irla batekin erlazionatzen ditu, Irlandako bandera baitzen honda-  
rretan agertzen zena baina hari “nda” letrak kenduz gero “Irla” hitza agertzen da.  
Orduan Scottek txikitari Liverpoolera egin zuen bidaia gogorarazi zuen eta batik  
bat bertan Mythictown izeneko irla batetara egin zuten txangoa.

Eskutitz barnean bi hegazkin txartel zeuden, Liverpooleko norakoarekin. Hurrengo egunean irtengo zen hegazkina Newcastlego aireportutik baina aurretik Scottek bere familia abisatu behar zuen hurrengo egunetan egingo zuen bidaiaz esanez ez zela etxean egongo denbora epe kontaezin batean. Erabaki zuen badaezpada ere ez kontatzea egi guztia, ondorioz pentsatu zuen modurik onena mezu bat uztea izango zela. Hau zihoen mezuak:

Guraso maiteak, ondorengo egunetan ez naiz etxean izango arrazoi pertsonalengatik. Bueltatzean lasaiago hitz egingo dugu. Ez arduratu ongi ibiliko nahiz eta. Maite zaituztet. Scott.

P.D. Txintxo ibili Tim, faltan botako zaitut anaiatxo.

#### 4. KAPITULUA

12:07an irten zen hegazkina. Marrazok berarekin poltsa bat hartu zuen, bertan hainbat lanabes baliagarri zituelarik. Scottek aldiz ez zuen horrelako trasterik hartu eta 5 urte egin zituenean oparitu zioten eta beti poltsikoan zuen metxero zahar bat besterik ez zeraman. Ordu bete eskasean iritsiak ziren Liverpoolera eta turismorako denborarik hartu gabe irla txiki hartara joaten ziren txalupak irteten ziren kaira joan ziren. Kaia ez zen oso handia baina irlaren xarmaren ondorioz bertan hainbat "guiri" zeuden irla sakonkiago ezagutzeko gogoz eta batik bat argazkiak ateratzeko intentzioarekin. Misterio haren ebazpena Scott eta Marrazori zegokien eta ez zuten nahi inork haien bidea oztopatzerik. Ondorioz turista haietako bakoitzari eskupeko bat eman eta Anfield estadioa bisitatzera bidali zituzten. Merezitako lasaitasuna aurkitu ostean, lehengo aurkitu zuten txalupan sartu eta ordu erdian jo eta su arraunean ibili ostean Mythictown-eko kostaldean lehorreratu ziren. Irla txikia zenez segituan antzeman zuten bertan ez zegoela katurik ere. Bazter guztiak miatzea erabaki zuten eta aurkikuntza lanetan zebiltzala etxola batetik zetorren argi berde bat sumatu zuten. Etxolako ate zaharra ireki eta barnean esmeraldazko kutxa bat aurkitu zuten, orduan Marrazok hotzikara bat sentitu zuen.

– Nik ezagutzen dut kutxa hau.– esan zuen aitonak. – Marrazo madarikatu hori ez da urruti ibiliko, baina gaur zeureak egingo du!

– Ez dut ulertzen, zer zerikusi dut marrazoak kutxa honekin? – galdetu zion Scottek.

– Kutxa hau ireki ahal izateko marrazoari bi ebakortzak kendu behar zaizkio. Bat errubizkoa da eta beste zafirozkoa– argitu zion aitonak. Ondoren giltzarrapo horretan kokatu – kutxari lotuta ziharduen metalezko figura arraro bat seinalatu zuen, hain zuzen bi zulo zituen – eta kutxa irekiko litzateke.

– Izugarria.

– Gainera zorteko zara, nire azken bidaian lan erdia egin nuen eta. – orduan poltsikotik kolore gorriko hortz moduko bat atera zuen. – Hemen duzu errubizko ebakortza.

– Goazen ba marrazoa aurkitzera, lanak erdibidean ez dira eta utzi behar.

Marrazoa aurkitzea ez zen zaila izan, irlari biraka zebilen hegats erraldoia ikustean berehala ohartu zurik marrazoa gose zela. Honek inoiz baino urduriago jarri zuen Scott, bere bizitza arriskuan zegoela sumatu bazuen. Marrazo aldiz, hunkituta zegoen, hiper-motibatuta hain zuzen, 50 urte momentu hau itxaroten egon zen, dudarik gabe mendekuaren garaia iritsi zen. Aitonak egoera hau ondo planeatua zeukan eta irlan aurkitzen ziren harri zorrotz batzuen laguntzaz eta gainean zerman larruzko zorrotik atera zuen sokaz baliatuz, izugarritzko arpoi bat sortu zuen. Plana erraza zen, lehenik eta behin odol tanta bat isuriko zuten itsasoa hasten zen gunean marrazoa erakartzeko. Ondoren aitonak arpoia jaurtiko zion hura zauritzeko eta azkenik Scott ahotik zuen kemen eta indar guztia erabiliz zafirozko ebakortza aterako zion.

Guztia bikain hasi zen arpoiaren bidez aitonak ebaki bat egin bere buruari eta odola isurtzean. Berehala etorri zen marrazo maltzurra beraiek zeuden ingurura. Aitonaren nahiak arrakasta bihurtu ziren arpoia jaurti eta heste inguruan sastatzearan, marrazoak intziri bat egin eta uretan flotatzen geratu zen, odol asko galtzen hari zen eta hil zela zirudien. Orduan Scottek bere ausardia erakutsiz igerian animalia aurkitzen zen guneraino joan eta odol tartean murgildurik ahoa ireki zion. Orduan zafirozko ebakortza ikusi zuen, ondoan hutsune bat zuen, errubizko ebakortzak utzi zuena, bertatik eskua sartu eta ahal zuen indar guztiarekin tiraka hasi zen. Pixkanaka gogorki sartutako hortz hura ematen joan zen, jada irteteko puntuan zegoenean ordea ezusteko galanta hartu zuen mutikoak. Marrazo maltzur baina eder hura ez zegoen hilik, konortea galduta baizik eta begiak irekitzen hasi zen. Esku bat aho barnean sentiaraztean erreflexuen ondorioz ahoa bortizki itxi zuen barnean zegoen guztia janez, baina kasu honetan ez zuen ezer tragatu segundo bat aurretik Scottek maisuki eta zorte apur batekin ebakortza hartu eta eskua infernuko zulotik atera zuelako. Azken saiakera honek marrazoari geratzen zitzaion indar guztia kendu eta horrelaxe iritsi zen bere amaierara.

Scott igerian hondartzara itzuli eta aitonarekin elkartu zen. Hura oso zoriontsu zegoen, vendetta beti gozoa izaten da, baina kasu honetan oraindik ere gehiago. Mutikoari zorionak eman eta korrika batean etxola zaharrera itzuli ziren kutxa irekitzera. Bi harribitxiak kutxako zuloetan jartzean, klik txiki bat entzun eta kutxa bere kaxara ireki zen. Barnean, espero zuten bezala hirugarren eskutitz bat kokatzen zen, hau ere aurrekoak bezala irekia eta mezu batekin:

Picasso. Moises. Agur gaiztotasuna.

## 5. KAPITULUA

Hirugarren froga besterik ez zitzaion geratzen bikoteari. Zatorik gogorrena eta arrisksuena igaro zuten baina orain koderik zail, arraro, bitxi eta ilogikoenak deszifratzea besterik ez zitzaion geratzen. Picasso zen mezu misteriosuko lehenengo hitza eta aldi beran soluziobiderako giltza. Pablo Picasso gaur egun mundu osoan ezagun den XX. Mendeko pintore bat izan zen. Hainbat obra garrantzitsu egin zituen baina horien artean ospetsu eta dotoreena Gernika izan zen. Hau Espainiako Gerra Zibilean zehar Gernika herria bonbardatu ostean margotu zuen eta garai hartan Madrilgo Pradoko museoan kokatzen zen. Baina berriro ere senari jaramon eginez Espainiako kapitalera joan ordez Euskal Herriko herri xume hartara joan ziren. Behin bertan zeudelarik pentsatu zuten orain logikoena bertako interes turistikodun guneaz galdetzea zela. Beraz aurkitzen zituzten pertsoneri galde egiten hasi eta gernikar guztiengandik erantzun berbera jaso zuten: Gernikako Arbola.

Orduan, aitonak erabaki garrantzitsu bat hartu zuen eta horrela esan zion Scotti:

– Gazte, erabaki dut bidaia zeuk bakarrik jarraitzea duzula onena. Patuak zeu aukeratu zaitu misteriodun kondaira argitzeko. Neuk neure aukera izan nuen duala 50 urte, zeure adin berarekin eta ez nintzen zeu bezain buruargia izan. Gainera jada nahikoa lagundu dizut eta benetan hoberena espero dizut. Gauza ongi badoaz egongo gara berriro ere Newcastlen.

– Izugarritzko pena ematen dit zutaz banatzeak baina arrazoi duzu, bakarrik egin behar diot aurre enigmari. Ondo segi eta egongo gara berriro ere.

– Hurren arte Scott.

– Agur Marrazo, eta eskerrik asko benetan.

Beraz, bikotea banandu eta Scottek bere bidetik bidaia jarraitu zuen. Birritan pentsatu gabe zuhaitz garrantzitsu eta batik batik sinboliko haren bila joan ziren. Segituan aurkitu zuen, herri hartako monumenturik garrantzitsuena zenez toki guztietan iragarria baitzegoen. Gernikarrek esan zioten lehen zuhaitza duela 5 urte hil zela eta haritz berri hau, Batzar Etxearen aurrean landatua zegoena, haren ondorengoa zela. Zuhaitzaren ondora eltzean berriro ere, eguraldi aldaketa bat gertatu zen; oraingo honetan, eguzkia desagertu eta behe-lainoa agertu zen. Orduan barnetik berriro ere ahots bat sentitu zuen, oraingoan ere geroz eta ozenagoa:

Ekariezadazu falta zaidan fruitua, ekarri fruitua!

Bat-batean, azpian sabaizulo bat notatu zuen, hura bere kaxara ireki eta Scott erori egin zen. Abiadura handian hainbat metro jaitsi ostean lasto-pilo baten gainera erori zen. Ahal zuen modura begiak zabaldu zituen, parez pare ate eder eta itzaltsu bat zuen. Atea irekitzera joan eta segituan ohartu zen hura irekitzeko beste

kode bat deszifratu beharra zeukala. Oraingo honetan jada ezagunak zituen esku-titz horietako bat atea behealdean zeukan postontzitik atera zuen. Honako mezu hau zegoen idatzirik eskutitzaren barneko horrialdean:

Argitu nazazu eta azalduko naiz.

Mezu honen esanahia ere segituan jaso zuen mutiko buruargiak. Gela ilun hartan argia egiteko zuen tramankulu bakarra bere metxero zahar maitea zen. Beti izan zion maitasuna objektu hari bere lehen oparia izan baitzen, nahiz eta oraindik ez zion erabilera onuragarri eman. Bazen garaia hori aldatzeko eta beraz metxeroaren bidez sua egin eta atea galant hura argiztatu zuen. Pixkanaka, behetik gora atea aztertzen hasi zen, erdialdean zihoala ezusteko atsegingarri bat hartu zuen marrazki bat aurkitzean alde bakoitzean zulo batekin. Honelakoa zen irudia:



Oraingoan ere, bikain ulertu zuen marrazkia Scottek. Marrarik ez zuten bi behatzak, bakoitzari zegokion zuloan sartu behar ziren. Horixe egin ostean, atea klik egin eta musika lasai bat jotzen hasi zen atea irekitzen hari zen heinean. Ondorengo gelara sartzean, garbi geratu zitzaion bertan zegoela misteriozko abentura honen amaiera lurrean letra larriz hauxe zegoelako idatzirik:

**AZKEN GELA.**

Azken gela hau txiki samarra zen eta bestearekin zuen desberdintasun nabarmenena honek zuen argitasuna zen. Gelaren erdian, argi gorri indartsuago batez seinalaturik mahi biribil bat zegoen. Haren gainean berriz ehunka urtean gizakia aurkitzen saiatu den objektu prestigiotsua zegoen, hain zuzen, itun-kutxa. Elizgizonek ziotenez urrezko kutxa bikain honen barnean Moisesek bere eskuz idatzi zituen Hamar Aginduen harlauza kokatzen zela baina kutxaren gainean zegoen pergaminao irakur ostean Scott konturatu zen harlauza hartaz gain bazela beste objektu erlijioso bat are eta garrantzi handiagokoa kutxaren barnean. Pergamino eder hartan, tintaz idatzitako letra eder batean, hauxe zihoen:

*Adam eta Eva, zuen bekatua barkatzeko garaia iritsi da.*

*Ireki nazazu Scott*

*Egizu hegan*

*Askatu mundua gaiztotasunetik*

Kutxaren estalkia gogorki atxikirik zegoen, hura kentzea ez zen indar kontua, fede kontua baizik. Orduan Scottek abentura hartan igarotako bizipen guztiak gogorarazi zituen. Aldi berean gaur egun mundua jasaten hari zen injustizia guztiez ohartu zen, orain zela orduan kalte guzti horri bira emateko, mundu hobea bat eraikitzeko. Fede guztiaz bultza egin eta itun-kutxa ireki zuen, barnean harlauza magiko hartaz gainera Adam eta Evak hozka eginiko sagarra zegoen. Hura bere indar guztiarekin heltzean, bultzada moduko bat sumatu zuen. Bat batean zulo hartatik irten eta berriro ere Gernikako Arbola zuen parez pare. Eskuetan sagarra zuelarik, berriro ere barne-ahotsak presentzia hartu zuen:

– Jaurti nire fruitua, nire fruitua!

Scottek senari jaramon egin eta bere indar, fede eta maitasun guztiaz sagarra zuhaitz sinboliko hartara jaurti zuen. Beste klik bat entzun, eta begiak argi bortitz batek itsutu zizkion:

– Amaitu da. – entzun eta pentsatu zuen.

## **EPILOGOA**

Oraingoan, konortea berreskuratzean, azken eskutitz bat sentitu zuen esku artean. Kasu honetan, eskutitza itxirik zegoen, urre kolorekoa zen eta barnean letra larriz idatziriko mezu garbi bat zeukan:

**ZORIONAK SCOTT. NEWCASTLEGO KONDAIRAREN MISTERIOA ARGITU DUZU. MUNDU HOBEAGO BAT ERAIKITZEN LAGUNDU DUZU. ESKE-  
RRIK ASKO BENETAN.**

Ordutik aurrera, guztiak zoriontsu bizi izan ziren munduan. Scott eta Marrazo berriro elkartu eta lagun handiak egin ziren. Mutikoa Newcastle futbol taldeko kapitain bihurtu zen eta aitonak marrazoei zien gorrotoa alde batera utzi eta zoologiko batean hasi zen lanean batik bat marrazoekin lan eginez.



## Benetako altxorra

❖ Aitor Ormazabal Zubeldia

Orain dela hamar bat urteko istorio bat kontatuko dizuet. Bazen behin Euskal Herriko herri bat. Azoka ugari izaten ziren bertan eta herriaren erditik ibai bat igarotzen zen. Kaleetan zehar merkatarien abereak ibiltzen ziren eta kaleak gorotzez zikinduta uzten zituzten. Bertan, Aimar izeneko mutil bat bizi zen. 14 urte zituen eta bere adinerako nahiko baxua zen. Ajedrezean jolastea ikaragarri gustatzen zitzaion eta lehiaketa askotan hartzen zuen parte. Ajedrezaz gain, arrantza egitea atsegin zuen eta orduak ematen zituen kaina eskuetan, amuarrainak arrantzatzen. Iraitz izeneko anaia bat zuen eta hau, berriz, Aimar ez bezala, bihurri hutsa zen. Bere anaia baino urte bat gazteagoa zen, baina anaiari buru erdi bat jaten zion. Aimar arrantzan aritzen zen bitartean, Iraitz uretara harriak jaurtitzen aritzen zen, uraren gainera ahalik eta urrutiena joan zedin. Honek Aimar ikaragarri haserretzen zuen, amuarrainak ikaratzen zizkiolako. Ikasketetan ez zen ondo moldatzen, baina marrazkiak egiterako garaian ez zegoen bera baino trebeagorik.

Ikastolako azken eguna zen eta bi anaiak txirrinak noiz joko zain zeuden udako opporrak iristeko. Halako batean, “txirrin” hotsa entzun zutenean, korrika bizian atera ziren ikastolatik eta beti bezala biak batera etxerako bidea hartu zuten.

– Aimar, udako opporrak iritsi direla!– esan zion Iraitzek bere anaiari alaitasun osoz.

– Bai, nik ere banuen gogoia.– erantzun zion Aimarrek patxadaz.

Etxerako bidean zihoazela, Aimarrek beti bezala zubitik behera begiratu zuen ea amuarrainik bazen..

– Begira, Iraitz, zer nolako amuarraina!

Aimarrek ingurura begiratu eta harririk ikusi ez zuenean esan zuen:

– Bai, eskerrak harririk ez dudana, bestela buruan jo eta hortxe geratuko zen– esan zuen, anaia amorrarazteko asmoz.

– Inozoa! Nik bai joko zintuzket harriarekin buruan– erantzun zion Aimarrek

amorruez.

Sesio honen ondoren, berriz ere etxerantz abiatu ziren. Etxera iristeko jadanik iluntzen hasia zuen.

– Arratsaldeon, ama!– esan zuten anaiek etxera sartzean.

– Arratsaldeon, semeak! Gogoratzen al zarete bihar goizean izeba Begoñaren etxera zoaztela hilabetea igarotzera?

– Egia! Ahaztuta neukan. Ikaragarrizko gogoia daukat– esan zuen Iraitzek poza-  
ren pozez.

– Ederki! Ikaragarrizko gogoia daukat lehengusu Olaia ikusteko– esan zuen Aimarrek hara joateko irrikatan.

– Beno, nik afaria prestatzen dudan bitartean, maleta prestatu, behar dituzuen gauzeekin, bestela bihar goizean hasten bazarete berandutu egingo zaigu– Agindu zien amak.

Aita lanetik iritsi zenean, afaltzen hasi ziren denak batera. Aitak Joxan izena zuen eta oso gizon langilea zen. Egunean hamabi bat ordu ematen zituen lanean familia aurrera ateratzeko, eta askotan asteburua ere lanean igarotzen zuen. Aitak etxean denbora asko igarotzen ez zuenez, afaltzeko garaian egunean egindakoa kontatzen zieten semeek.

Goizeko 9ak ziren eta autoa hartu eta izebaren etxera abiatu ziren bi anaiak, ama gidari zutela.

Bidaia astun baten ondoren, izebaren etxera iritsi ziren. Kostaldeko herri txiki batean zegoen. Portu eta hondartza txiki bat zituen eta kostatik gertu karakol itxurako uharte bat ikusten zen. Etxe nahiko handia eta iluna zen, leiho gutxiarekin eta egurrez egina. Berrikuntzaren bat ez litzaioke gaizki etorriko, baina leihotik zintzilikaz zeuden lore mordo horiek itxura dotorea ematen zioten.

Kaixo, Aimar! Kaixo, Iraitz! Zer moduz zaudete?– galdetu zien izebak.

– Primeran, hona etortzeko irrikatan geunden.

– Pozten naiz. Maletak hartu eta goazen zuen gelak ikustera.

Anaiak etxe barrura sartu zirenean, harriturik geratu ziren. Kanpotik zahar xamarrak zirudien arren, barrutik zeharo desberdina zen. Beste munduko ezer ez bazen ere, oso txukuna eta zuriz pintatutako hormak zituen. Alfonbraz eta atez josia zegoen eta usain goxo bat usain zitekeen.

– Hau da zuen gela. Zer iruditzen?

– Askok gustatzen zait– erantzun zion Aimarrek aho zabalik.

– Niri ere bai!– erantsi zuen Iraitzek.

– Oso ongi. Maletak husten dituzuenean, zatozte behera zuen ama agurtzera!

Anaiak oso gustura zeuden beren gelarekin eta Iraitzek leiho ondoko ohea hartu zuen, bietan azkarrena izan zelako. Maletak hustu zituztenean, behera jaitsi ziren ama agurtzera.

– Aio, ama!– esanez agurtu zuten bi anaiak.

– Gero arte, semeak! Eta ez ahaztu txintxo portatzea eta izebari laguntzea!

Hau esan ondoren, amak etxerako itzulerari ekin zion.

– Olaiarengana joan nahi baduzue, bere gelan dago, hirugarren solairuan, baina isilik ibili, amona oraindik lotan dago eta.

– Bale, isilik ibiliko gara.

Olaia oso neska berezia zen, adinagatik edo, umore aldaketa ugari jasaten zituen. Hondartzara joatea ikaragarri gustatzen zitzaion, baina gehienetan bakarrik joaten zen. Irakurtzeko zaletasun handia zuen eta orduak eta orduak ematen zituen hondartzan etzanda liburuak irakurtzen.

Eguna aitaren batean pasa zen eta bidaiia nahiko luzean izan zutenek, nekatuta zeuden eta goiz joan ziren lotara.

Goiza iritsi zen, goiz eguzkitsua eta gosaldu ondoren hiru lehengusuak gordeketan jolasten hasi ziren etxe barruan.

– Horrelako eguraldia eta zuek etxe barruan jolasean!– esan zien izebak etxe barruan jolasean ikusi zituenean.

Iraitzi tokatzen zitzaion kontatzea eta Olaia eta Aimar hautsez eta gauza zaharrez beteriko gela batean gorde ziren. Gela nahiko iluna zen, bi metrora ere juxtu-juxtu ikus zitekeen. Ikusmiraz, Aimar gelako armairu zaharrak irekitzen hasi zen eta halako batean haietako armairu batean zer edo zer ikusi zuen.

– Begira! Etorri zaitez, Olaia. Begira zer aurkitu dudan.

Olaiak txantxetan ari zela pentsatu zuen, baina badaezpada ere begiratzera joan zen.

– Hor ez dago ezer, paper zahar batzuk besterik ez dira.

Begi hutsez ikusita hala ziruditen, baina hala ere Aimarrek haietako bat hartu zuen. Gutun bat zen, eta barruan zer zegoen jakin nahian, gutuna ireki zuen. Ireki zuenean izugarritzko ezustekoa hartu zuten biek. Orduan gela hartatik atera eta Iraitzi aurkitu zutena erakustera joan ziren.

– Begira, Iraitz, mapa moduko zerbait aurkitu dugu!– esan zuen Olaiak aurkitu zutena beste munduko zerbait balitz bezala.

– A bai! Eta non aurkitu duzue?

– Gauza zaharren gelan– erantzun zion Aimarrek.

– Zer den ziurrago jakiteko, zergatik ez diogu amonari galdetzen ea zer esan nahi duen, agian aitonaren zerbait zen?– aholkatu zuen Olaiak.

Amonari galdetzera joan ziren eta amonak mapa bat zela aitortu zien, baina gazetetan bera eta aitona m apak nora eramaten zuen aurkitzen saiatu zirela, baina ez zutela inoiz ezer lortu. Hau entzuteak gazteak ikaragarri animatu zituen maparen misterioa aurkitzera.

Harrigarria badirudi ere, mapak bi “helmuga” (X) zituen, baina helmugetako bat uhartean zegoenez, beste helmuga aurkitzeari ekin zioten. Helmuga hori beren etxean bertan aurkitzen zen.

Seguruenik, paper zahar horien artean egongo da!– esan zuen Olaiak.

Bi anaiak ados zeuden eta berriz ere gela hartara joan ziren. Paper zahar haie-tan begiratzen hasi ziren eta beste mapa bat aurkitu zuten.

– Beste mapa bat! Zertarako behar dugu beste mapa bat?– esan zuen Aima-rrek harriturik.

Mapa honetan ez zen helmuga garbi ikusten. Gazteak galduta zeuden eta amo-narengana joatea erabaki zuten.

– Amona, beste mapa bat aurkitu dugu!– adierazi zion Olaiak.

– Egia, ahaztu egin zait lehen esatea. Konturatuko zineten bezala, mapa honen helmuga ikusezina da. Aitonak eta nik mapa hau aurkitu genuenean eta helmuga-rik ez zuela ikusi genuenean, ikertzeari utzi genion.

Baina amonak esan zuena entzun zuenean, Olaiak liburu batean irakurri zuenaz (denboraren poderioz ikusezin geratu zen liburua, produktu kimiko baten ondo-rioz, liburuaren edukia ikus zitekeen) gogoratu zen eta anaiei liburuan gertatuta-koa azaldu zien.

– Nik badut kimikan artista bat den lagun bat. Agian berak liburuan gertatuta-koa egin dezake maparekin!


Olaiaren liburu zaletasunari esker, urrats handia eman zuten maparen ikerketan.

Lagunaren etxera abiatu ziren, eta herria txikia zenez, berehala iritsi ziren. New-ton izena zuen; izatez, ingelesa zen eta askok “zerebrito” deitzen zioten. Zientzie-tan aditu zen, batez ere kimikan eta unibertsitate garrantzitsu batera joateko beka bat lortu berria zuen.

– Egun on, Newton. Mesede bat eskatzea ba al dut?

– Nik egin dezakedan zerbait baldin bada, lasai eskatu!– erantzun zion Newton-  
nek laguntzeko gogoz.

Olaiak azaldu zion ea produktu kimiko baten bidez mapa berrikus zitekeen eta  
lagunak saiatuko zela esan zion. Goiz osoa bere etxean pasa ondoren, azkenean  
ortu zuten nahi zutena. Maparen “helmuga” garbi ikus zitekeen!



Maparen helmuga hau ere karakol itxurako uhartean zegoen, baina helmugaz  
gain, uhartea marra horizontalez eta bertikalez zegoen estalia. Newtoni egindako  
lana eskertu ondoren, etxera itzuli ziren.

– Zer esan nahiko dute marra horiek?– esan zuen Iraitzek.

– Ez dakit, baina zerbait esan nahiko dutela, seguru– erantsi zuen Aimarrek.

– Ea, bi mapak badauzkagu eta bietan helmuga uhartean dago. Orain uhartera  
joateko modua aurkitu behar dugu. Esan zuen Olaiak detektibe baten moduan.

Gazteak kostaldera abiatu ziren txaluparen bat aurkitzeko asmotan.

– Hor badago txalupa bat. Agian balio digu!– hots egin zion Olaiak behatzare-  
kin txalupa seinalatuz.

Txalupa oso zaharra zen eta bistakoa zen berrikuntzak behar zituela.

– Zulo horiek tapatuz gero, balioko digulakoan nago– esan zuen Aimarrek, gaz-  
teak animatzeko asmotan.

– Bai, hori biharko utziko dugu. Iluntzen ari du eta etxera joateko ordua da-  
esan zuen Olaiak, gaurkoz nahiko egingo balute bezala.

Goiza iritsi zen eta Begoñari txalupa konpontzeko behar zituzten tresnak (egu-  
rra, iltzeak, mailua...) eskatu zizkieten.

– Ama, otartekoak hartu ditugu eta seguruenik ez gara iluntze arte itzuliko!– hots egin zion Olaiak.

– Ongi da. Ondo pasa, baina zintzo portatu, e!

– Hamar bat minutu oinez ibili ostean, txalupa zegoen tokiraino iritsi ziren eta txalupa konpontzeari zioten. Hainbat saiakeraren ondoren, txalupak flotatzea lortu zuten. Txalupak arraunik ez zeuzkanez, beraiek egin zituzten, eramandako egurra-ekin.

– Flotatzen duen txalupa eta arraunik baditugu, abia gaitezen uharterantz!– esan zuen Iraitzek ahots altuan.

– Bai, bai! Abia gaitezen!– erantsi zuen Olaiak.

Uharteak ez zegoen oso urrun, baina zeuzkaten txalupa eta arraun kaxkar haiekin, ikaragarri kostatu zitzaaien iristea. Iristean zirrara berezi bat sentitu zuten, zerbait handia egingo balute bezala. Uharteak kostatik zirudiena baino askoz ere ederragoa eta berdeagoa zirudien bertatik.

Iparorratzaren laguntzaz, lehenengo helmuga aurkitzeari ekin zioten. Segituan ikusi zuten zuhaitzen “X” handi bat eta zuhaitzaren zulo baten barruan, paper zahar bat aurkitu zuten eta zera zerion: “IPARRALDEA”.

– Iparraldea! Zer esan nahiko ote du honek?– ahoskatu zuen Iraitzek.

– Ez dakit, jakingo banu esango nizuke!– esan zuen Olaiak.

Zer esan nahi zuen ez zekiteenez, beste helmuga bilatzeari ekin zioten.

Beste helmuga zegoen tokira iritsi zirenean, “X” itxurako harri batekin topo egin zuten. Hiruren artean harria altxa zuten eta harriaren azpian zegoen kutxa aurkitu zuten. Kaxa irekitzean, ajedrezeko zaldi bat zegoen bertan.


– Ajedrezeko zaldi bat!– oiuhu egin zuen Iraitzek etsita.

Jadanik bi helmugak bilatuak zituzten, baina alferrik, ez zekiten zer esan nahi zuten. Halako batean Aimarri ideia zoragarri bat otu zitzaion:

– Badakit zer esan nahi duten! Batetik, ajedrezeko zaldia dugu eta mapetako bat marraz estalia dago, ajedrezeko taula balitz bezala. Eta bestetik, iparraldea; orduan mapa horretan zaldiaren mugimendua iparralderantz egiten badugu, mapan helmuga berri bat aurkituko dugu eta seguruenik bertan egongo da altxorra!



– Zu bai azkarra, Aimar. Buru horretan zerrautsaz gain zerbait badagoela erakutsi duzu!”– esan zion Iraitzek beti bezala anaia amorarazteko asmoz.



Urrats izugarria emana zuten eta aurkitu berri zuten helmugara bidean abiatu ziren altxorra bertan egongo zelakoan. Toki hau besteen aldean oso ezberdina zen. Milaka zuhaitz zeuden eta kosta egiten zen armiarma sareekin ez topatzea. Gazteak ikaratuak zeuden, toki hartan horrenbeste zuhaitzengatik ez zelako eguzkiaren argia sartzen, baina hala eta guztiz ere helmugara iristea lortu zuten.

Helmuga aurkitzen zen lekuan, ez zegoen zuhaitzik, inguruan zuhaitz mordoak edukizetik, bat-batean ezertxo ere ez egotera pasa ziren. Gune honen erdialdean makila bat zegoen lurrian sartuta. Makila lurretik ateratzea lortu zuten eta geratu zen zuloan, Olaiak besoa sartu zuen.

– Begira, begira, behatzekin zerbait uki dezaket!

Gazteak zerbait baliotsua zelakoan zeuden, baina Olaiak paper bat atera zuenean, sekulako atsekabea hartu zuten. Paperak zera zerion:

– "Altxorra ez da eskuetan har daitekeen zerbait; altxorra, bizitzako bizipen onak dira, lagunak, familia... Hori da altxorra eta ez atsekabetu hau irakurtzean, zeren eskutitz honen orde zerbait "baliotsua" balitz, zuen arteko gatazkak besterik ez lituzke ekarriko.

Gazteek hau irakurtzean, bizitzan dirua baino gauza askoz ere garrantzitsuagoak bazeudela konturatu ziren eta poz-pozik etxerako bidea hartu zuten.

Itzulera nekagarri baten ondoren, etxera iritsi ziren. Izeba Begoñari eta amonari izan zuten abentura kontatu zieten eta harriturik geratu ziren biak. Egun oso neke-sua izan zuten, berehala lotara joan ziren gazteak.

Gainontzeko egunak gehienbat hondartzan igaro zituzten eta hilabetea igaro ostean, bai anaiak amak beharturik beren etxera itzuli ziren.



## XX. mendeko Gauguin

❖ Unai Iparragirre Quilez

Orain ere margotzen nire bizitza osoa eraman dut margotzen...

Dena orain dela hogeï urte hasi zen. Ni hemezortzi urteko gaztea nintzela hil zen aita, ama, Peru semeetan gazteena, Migel tartekoa eta ni bakarrik utzita. Zaharrena nintzenez, nire gainean erori zen dirua etxera ekartzeko bete beharra. Horregatik etxetik atera, hirira jaitsi eta egun osoa pasatu nuen lan bila. Ez nuen lortu. Etxera sartu eta amak irribarre handi batekin hartu ninduen, nik tristura aurpegiz erantzun banion ere, barrez hasi eta besarkada handi bat emanez aitaren lagun Joxe etorri zela eta bere tabernan hartuko ninduela esan zidan. Hurrengo goizean etxetik atera eta Joxeren tabernara jaitsi nintzen, han zerbitzari lanetan ari nintzela gauza asko aditu nituen, Margariren seme zaharrena Alemaniara joan zela ikastera, Donostia industrializatzen ari zela, pisu altu asko eraikitzen ari zirela, Irazusta anaiak enpresa bat ireki behar zutela... Azken berri honek pixka bat asaldatu ninduen, Irazusta anaiak nire bizilagunak baitziren. Etxera iritsi eta ez zegoen inor. Buelta bat ematera joango zirela pentsatu nuen eta afaria prestatzea bururatu zitzaidan. Handik ordubetera ama eta bi anaiak agertu ziren, bizilagunaren etxera joan zirela esan zidaten eta bertan txokolate eta kafesne beroa hartu zutela esan zidaten. Afaltzerakoan hango berriak kontatu zizkidan amak eta tabernan aditutakoa argitu zidan amak, bai, bi gazteek enpresa bat ireki behar zuten; amak, ordea, ez zekien zer nolako enpresa izango zen. Segituan gaiez aldatu eta afaltzen bukatu genuen.

Egunero egiten nuen gauza bera, nire bizitzan jadanik errutina aspergarri bat bihurtu zen. Amildegian behera nindoan, nire bidea aldatuko zuen koska baten esperoan. Koska txiki baten ordeztu, lurra aurkitu nuen, izugarrizko kolpea jasoz. Eta ni eta nire familiaren egoera berriz ere maldan behera jauzi zen. Joxe, nik lan egiten nuen tabernaren nagusia, hil eta bere familiakoak taberna itxi nahi izan zuten. Hurrengo aste osoa etxean pasan nuen ezer egiteko gogorik gabe, baina banezien ahalik eta azkarren hasi behar nuela lana bilatzen. Ni ohean botata nengoen nire ama ondoko etxetik etorri zenean, etxeko andrearekin arratsaldea pasa ondo-

ren. Segituan jaisteko esan zidan eta pozez txoratzen, Peio, Irazusta anaietako bat, haien enpresan jendea behar zutela eta ni joan nintekeela esan zion amari. Hurrengo goizean ondoko baserrira joan nintzen; Peio bizi zen tokira, alegia. Han berarengatik galdetu nuen eta bere amak kanpoan zela baina segituan iritsiko zela esan zidan. Beraz, etxean itxoiteko proposatu zidan. Peio iritsi zenean, ea zer nolako enpresa zen galdetu nion eta berak etxeak margotzen zituztela eta astelehenean nire bila pasatuko zela erantzun zidan. Zer behar nuen ere galdetu nion, dena han aurkituko nuela erantzun zidan irribarre zabal batekin.

Astelehena iritsi zen eta horrekin batera Peio ere bai. Donostiara joan ginen eta han buzoa, pintura kuboak eta brotxa hartu eta museo batera joan nintzen lankideekin, iritsi eta oraindik hango koadroak biltzen ari ziren. Nire lankide guztiak mar-mar batean hasi ziren, hori ez zela posible, dena txukunduta egongo zela agindu zietela... Ni, berriz, ahozabalik nengoen. Ez nuen inoiz halakorik ikusi. Ez nekien horren gauza ederrik egin zitezkeenik, pintzela eta kolore batzuk nahastuz. Orduan konturatu nintzen zein zen nire benetako nahia. Nik horrela margotu nahi nuen, baina ez nuela aukerarik konturatu nintzen. Ezin nuen horretan denbora galdu nire familia gosez hiltzen zen bitartean. Museoa pintatzen bukatu genuen. Egun horretan hainbat etxetan egon nintzen eta gauean etxera bueltatu nintzen lur jota, baina koadro horiek burutik kendu ezinean. Horrela pasa nituen asteko egun guztiak eta larunbatean nire lehengo paga jaso nuen, dirua kontatu eta asteko janaria erosteko dirua sobran nuela konturatu nintzen. Beraz, denda batera joan eta papera eta kolorezko margoak erosi nituen. Korrika joan nintzen etxera eta sartu bezain pronto atera nintzen ondoko baserria atzealdean mendia zuela margotzera. Hasieran pixka bat kostatu zitzaidan, baina gero et errazago egiten nituen itzalak, eguzkiaren izpiak, baserriaren harriak... Konturatzeko, ilunduta zegoen eta etxera bueltatu nintzen poz-pozik. Amari eta anaiari erakutsi nizkien egindako marrazkiak, amak marrazki hura ikusten toki horretan zegoela sentitzen zuela esan zidan ni asko poztu nintzen. Igandean eguraldi txarra zegoenez, ezin nintzen kanpora tera marraztera. Beraz, nik asmatutako zerbait egin nuen, egun osoa pasa nuen marrazki horrekin. Bukatu nuenean, afaldu eta ohera joan nintzen, hurrengo goizean goiz esnatu behar bainuen.

Astelehen horretan bakarrik joan behar izan nuen etxe batea eta ideia paregabe bat otu zitzaidan. Egongelako paretan margolan bat egiten hasi nintzen, hain gustura nengonez, ez nintzen ohartu bazkaltzeko ordua iritsi zela eta ordu erdiko atsedena nuela. Bukatu nuenean, bazkaltzeko denbora libre hori pasa zen eta nik egongela hori margotuta eduki behar nuen. Beraz, brotxa lodia hartu, pintura kuboan sartu eta nire margolanaren gainean pintatu nuen dena horiz. Bukatzean pintura kuboak eta pintzelak bueltatzera joan nintzenez, Peiori ea egunero bakarrik egon nintekeen galdetu nion, eta berak harriturik baiezkoa eman zidan.

Hurrengo egunean beste etxe batera joan nintzen eta han ere margolan bat egin eta gero gainetik margotu nuen etxea eta horrela aste bat pasa eta gero hilabetea ere pasa nuen, nik geroz eta hobeto margotzen nuen. Ostegun batean beti bezala margolan egiten ari nintzela etxeko atea irekitzen aditu nuen. Zer egin pentsatu baino lehen, gizon zahar ba agertu zen eta egiten ari nintzena begiraturaz, berak pareta kolore morez margotuta ikusteaa espero zuela esan zidan. Ni gorri-gorri jarri eta segituan pintatzen hasiko nintzela esan nion, brotxa pintura kubotik atera behar nuenean aitonak bere eskua nirearen gainean jarri eta egiten ari nintzena bukatzeko agindu zidan. Harriturik nire margolana bukatu eta etxera bueltatu nintzen aitona hura han utzita.


Hurrengo egunean margo kuboan bila joan nintzenean, Peiok nire galdezka etorri zirela esan zidan eta aitona hura agertu zen atearen atzetik. Nire ondora hurbildu eta berarekin joateko agindu zidan. Nik Peiori begiratu eta honek keinu baten bitartez eguna libre uzten zidala esan zidan. Aitonak, Pedro izena zuela esan zidan eta arteaz hitz egiten zen aldizkari bateko kazetaria zela argitu eta nitaz hitz egin nahi zuela esan zidan. Horretarako nire bizitza kontatu eta nik egindakoa margolan bat eman behar nion, eta hurrengo egunerako geratu ginen. Etxera bueltatu eta egun oso libre nuenez, nire bizitzako margolanik onena egitea erabaki nuen. Egun osoa pasa nuen, baina ez alferrik; inoiz egindako lanik onena baitzen. Afaltzeko orduan amari dena kontatu nion eta pozez gainezka besarkada handi bat eman zidan eta gero ohera joan ginen. Hurrengo goizean Pedro nire bila etorri eta taberna batea joan ginen nire bizitzaz hitz egitera. Berak adi-adi aditu zidan eta noizean behin bere koadernoan gauzak apuntatzen zituen. Bukatu nuenean, nire azken margolana eman nion eta aitonak harridura aurpegiz hurrengo astean aldizkaria emango zidala esan zidan. Egon ezinik itxoin nuen aste osoa jada ez nuen margolanik egiten etxeko paretetan, ezin bainintzen kontzentratu.

Hurrengo asteko ostirala iritsi zen eta Pedoren berririk ez nuenez jada, txantxa bat ez ote zen izango galdezka ari nintzaion buruari ate joka ari zirela entzun nuenean korrika atea zabaldu eta Pedro eta gizon pinpirin bat agertu ziren ate atzean. Pedrok aldizkari eman zidan eta nire margolana aldizkariaren portada zela ikusi nuen eta niri buruzko erreportajearen izenburuak hau zioen: "XX. Mendeko Gauguin". Egia esan, ez nekien zein zen Gauguin delako hori, baina margolari handia zelakoan nengoen. Hunkitu egin nintzen eta Pedrok barrura sar zitezkeen galdetu zidan. Nik aurrera pasatzeko keinu bat egin nien. Sukaldera eraman nituen eta han Pedrok bere laguna aurkeztu zidan Italiako arte eskolako zuzendaria zela esan zidan eta bere eskolara joan nahi nuen galdetu zidan. Nik baiezko eman nuen, baina erantzuna eman orduko damutu nintzen, ez bainintzen ohartu ama eta anaiari ez zitzaieela ezer geratzen jateko, nik astero dirua ekartzen ez banuen. Hobeto pentsatu eta gero Pedrori azaldu nizkion nire arazoak. Eta ezezkoa eman

behar izen nuen Pedrok italierraz zuzendariari nire arazoak kontatzean, italiarrak ezer pasako ez balitz bezala erantzun zion Pedrori. Honen aurpegia berriro ere alaitu zen. Zuzendariak horretan arazorik ez zegoela esan zion, eskolak nire familiari hileroko dirua bidaliko ziola esanez. Asko lasaitu nintzen eta baiezkoa eman nuen berriro ere. Ama iristerako joanak ziren Pedro eta italiarra. Amari kontatu nion pasatutakoa eta amak pena aurpegiz joan nintekeela esan zidan. Faltan asko botako ninduela esan zidan, nik urtean behin bisitatzera joango nintzela eta egunero kartak bidaliko nizkiola erantzun nion.

Handik hilabete batera abiatu nintzen Erroma aldera. Han gauza asko ikasi nituen eta nire marrazki teknika jadanik bikaina zen. Ikasketak bukatu nituenean, etxera bueltatu eta Donostiako museoan, nik garai batean margotutako museo hartan erakusketa bat antolatu nuen. Mundu guztiko kazetariak etorri ziren, ni arte eskolako onena nintzenez, famatu egin nintzen eta. Margolan asko saldu nituen eta han lortutako diruarekin Ameriketara joan nintzen, beste erakusketa bat antolatzera. Hori bai, oraingoan anaia eta ama nirekin ekarri nituen. Han etxe bat erosi nuen nire ama eta anaia etxera, Euskal herrira bueltatu ziren eta ni Ameriketara geratu nintzen, han ezagututako neska batekin. Gaur egun ezkondua nago eta hiru seme-alaba ditut. Nik margotzen jarraitzen dut.





VILLABONAKO UDALA



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA